

HIZKUNTZA

ESKU

BIDE

EN

EGOERA

2012

Hizkuntz Eskubideen Behatokia

5075

Oharra: Liburu honetan agertzen diren datuak, informazioa eta abar baliatu nahi izanez gero iturria aipatzea ezkertuko genuke.

Izenburua: Hizkuntza-eskubideen egoera Euskal Herrian, 2012

Mota: urteko txostena

Egilea: Hizkuntz Eskubideen Behatokia

Legezko gordailua: LGNA 860-2013

Argitaratze data: 2013ko ekaina

Ale kopurua: argitalpen digitala (www.behatokia.org atarian eskuragarri)

HIZKUNTZA

ESKU
BIDE
EN

EGOERA

2012

euskaraz
loizi
nahi dut



HITZAURREA

Euskaraz bizi nahi eta ezin duten, uzten ez dieten pertsonen kronika izan da 2012 urtea ere. Esaldi horretan biltzen du Behatokiak hizkuntza-eskubideen inguruan prestatu duen honako txosten honek 2012ko kronika.

Izan ere, herritarrez, pertsonez ari gara. Ikaragarria dirudikeen arren, egun gure herrian herritarrei ez zaie bizitzen uzten, ez dute duintasunez bizitzerik; Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren oinarritzko printzipioak hori jasota duen arren.

Ixteko bokazioz jaio zen Behatokia. Egunen batean Behatokiaren beharra izango ez zelakoan sortu zuen euskalgintzak. Halere, 2012 urteko txostenak ez du horretarako zantzurik ematen. Txostenaren ondorioei erreparatuz gero ez dago Behatokiaren itxiera eragingo duen elementurik, eta hori ezin dugu onartu, are gehiago kontuan hartuta hamabigarren txostena duzula eskuartean.

Hizkuntza bat normalizatuko bada, berezko hizkuntzan bizitzea ahalbidetuko bada herritarren hizkuntza-eskubideen bermea benetakoa izan behar da, eta egungo errealitateak kontrakoa adierazten digu, beste behin.

2012an hitz goxoak entzun ditugu Frantziako presidente Hollande jaunaren ahotik, baina hitz horiek ez dute ondoriorik izan. Europako Kontseiluaren Adituen Batzordeak zein Ministroen Kontseiluak ere haien iritzia agertu dute, eta eremu askotan hirugarren ebaluazioan lehenean esandakoa berretsi da. Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko onartutako araudia atzera bota dute, umek milaka kilometro egin behar dute urtero berezko hizkuntzan ikasi ahal izateko...

Eta gertaera horien guztien atzean pertsonak izan dira. Pertsonai, herritarrei ukatzen diete berezko hizkuntza erabili ahal izatea, baina, antza, horrek ez du bazterrik nahasten. Dirudienez, duintasunez bizitzea ez da kokatzen inoren lehentasunetan, eta ondorioz, eskubideen urraketak sistematizatu egiten dira.

Dena den, bada elementu positiborik. Izan ere, Behatokiko txosten honek beste behin erakutsi badu badagoela euskaraz bizi nahi duen herri bat. Oztopoak oztopo eguneroko bizitza duintasunez bizi nahi duten herritarrek dira Behatokira jo dutenak, eta horrek egiaztatzen du gure hizkuntza berreskuratzeko herri-gogo indartsua dugula.

Zorionak, beraz, euskaraz bizitzeko hautuari determinazioz eutsi diozuen herritar guztiei. Zorionak txosten honetan agertzen den kasu bakoitzaren atzean zaudetenoi. Zorionak duintasunez bizitzeko ahalegina egiten duzuen herritarroi. Espediente-zenbaki bakoitzaren atzean dagoen herritar bakoitzak, euskaraz bizitzeko ahalegina egiten duen herritar bakoitzak bidea zabaltzen dio euskaraz bizi nahi duen herriari. Handitu dezagun, beraz, gurari hori.

Paul Bilbao Sarria
Hizkuntz Eskubideen Behatokiko lehendakaria



AURKIBIDEA

0. SARRERA	9
1. OSASUNGINTZA	12
2. JUSTIZIA	16
3. HERRIZAINGOA.....	19
3.1. Segurtasuna	
3.2. Trafikoa	
4. HEZKUNTZA	22
4.1. Publikoa	
4.2. Pribatua	
5. ADMINISTRAZIOA	25
5.1. Administrazio orokorrak	
5.2. Udalak	
5.3. Administrazioen informazioa	
6. EKONOMIA	31
6.1. Ogasuna	
6.2. Finantzak	
6.3. Merkataritza	
6.4. Publizitatea	
6.5. Lan mundua (sektore publikoa)	
6.6. Lan mundua (sektore pribatua)	
7. HEDABIDEAK	41
8. ZERBITZUAK	43
8.1. Garraioa	
8.2. Posta	
8.3. Zerbitzu profesionalak	
8.4. Energia hornitzaileak	
8.5. Telekomunikazio enpresak	
8.6. Aseguruak	
8.7. Elikadura	
8.8. Ostalaritza	
9. AISIALDIA	48
9.1. Aisialdia	
9.2. Kirola	
9.3. Kultura	
9.4. Turismoa	
10. ERAGILEAK	52
10.1. Alderdi politikoak	
10.2. Sindikatuak	
10.3. Eragile erlijiosoak	
10.4. Bestelako eragileak	
11. ONDORIOAK	55
12. DATUAK.....	59

hahi du



O. SARRERA

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

Euskal hizkuntza-komunitatea estatus juridiko ezberdinen mende dago eta euskaldunari bizi den tokiaren arabera aitortzen zaizkio hizkuntza-eskubideak. Horrela, euskaldunon hizkuntza-eskubideei buruzko diagnosa, egun indarrean dauden ordenamendu juridikoen arabera eginez gero, hainbat kasutan eskubideak ez direla urratzen ondoriozta liteke.

Hizkuntza-eskubideen diagnosi egokia egiteko, beraz, ezinbestekoa da beste erreferentzia bat erabiltzea.

1996an Bartzelonan PEN Club International eta CIEMEN (Centre Internacional Escarré per a les Minories Ètniques i les Nacions) erakundeak sustatu eta UNESCO erakundeak babestutako Hizkuntza Eskubideei buruzko Mundu Mailako Biltzarrean Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zen. Bertan 66 Gobernuz Kanpoko Erakunde, PEN International erakundeko 41 zentro eta hizkuntza-eskubideen inguruko 41 aditu bildu ziren eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zuten.

Deklarazio honek abiapuntutzat du hizkuntza-eskubideak indibidualak eta kolektiboak direla. Horrela, hizkuntza-eskubideen betetasunaren erreferentetzat hizkuntza-komunitate historiko bat bere lurralde-eremuan hartzen du, beti ere, eremu hori ulerturik komunitate hori bizi den eremu geografikoa ez ezik, bai eta hizkuntzaren garapen osorako ezinbestekoa den espazio sozial eta funtzional gisa ere.

Horrela bada, nazioarteko adierazpen garrantzitsu hau abiapuntu eta oinarri hartuta garatzen du Hizkuntz Eskubideen Behatokiak bere jarduna.

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BEHATOKIA

Behatokia Euskal Herriko herritarren hizkuntza-eskubideez arduratzen da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein pribatuan, babestera zuzentzen du bere jardura.

Euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak babestu eta defendatzeaz ez ezik urratzen direnean salatzeaz ere arduratzen da Behatokia.

Euskal Herrian euskaraz mintzatzeko, administrazioari zuzendu eta administrazioetik zerbitzuak jasotzeko (osasuna, hezkuntza, justizia, informazioa edo beste edozein zerbitzu), bai eta orokorrean, jendarteak eskaintzen dituen aukerak euskaraz baliatzeko euskal hiztunek dituzten eskubideak babestea da.

Zein dira Behatokiaren lan-ildo nagusiak?

- Herritarren kexak hartzen ditu baldin eta Euskal Herrian euskara erabiltzeko eskubidea ez bazaie errespetatu, ukatu bazaie edo euskaraz egiteagatik kaltetuak izan badira.
- Kexak bideratu egiten ditu erakunde publiko zein pribatuen aurrean eta, beharrezkoa denean, bide judizialera ere jotzen du. Horretarako Euskararen Telefonoa izeneko zerbitzua eskaintzen die herritarrei, gertatu zaizkien eskubide urraketan berri Behatokiari jakinarazteko.
- Hizkuntza-eskubideen betetze-egoeraren azterketak eta txostenak egiten ditu eta horiek euskal jendarteari eta Euskal Herriko administrazio-erakundeei aurkezten dizkie.
- Euskal hiztunen hizkuntza-eskubideen egoeraren berri ematen du nazioartean eta harreman zuzena du munduko hainbat erakunderekin: Europako Kontseilua, Nazio Batuen Erakundeak...

- Hizkuntza-eskubideen edukiak zabaltzen ditu eta bertako hizkuntza erabili eta arlo guztietan garatzeko Euskal Herriko jendarteak duen eskubide gisa defendatzen ditu.
- Hizkuntza-eskubideekiko kontzientziatzea eta sentiberatzea lantzen ditu.
- Aldez aurreko lana egiten du eragin handiko tokietan euskararen presentzia soziala bermatzeko.

HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN EGOERA 2012 URTEAN

Ondorengo lerro hauetan islatuko dugun azterketa 2012an zehar herritarrek Behatokira helarazitako gertaeretan oinarritzen da. Euskararen Telefonoaren bidez, administrazioaren sektorean zein sozioekonomikoan, euskaraz jarduteko eskubidea errespetatu ez zaienean, Behatokira jo dute babes bila edota salaketa egitera bizi izan duten hizkuntza-eskubideen urraketaren aurrean eragiteko asmoz. Horrela bada, azterlan honen iturria herritarren beraien bizipenak dira, euskal hiztunek euren egunerokoan euskaraz jarduten saiatu direnean bizi izan dituzten egoerak.

Behatokiak herritarrek helarazitako informazio horrekin protokolo zehatza jartzen du abian. Horrela, lehenik eta behin espediente ireki eta erregistro zenbakia esleitzen dio kasu bakoitzari. Espediente zabaldutakoan, gertaera aztertu eta datu gehiago jasotzen saiatzen da. Ondotik, eskubide-urraketa eragin duen administrazio edo erakundeari horren berri helarazten dio eta herritarrari, berriz, kexa hartzaileak Behatokira igorritako erantzun edo azalpenen berri ematen zaio. Horrela, salaketak egindako bidearen eta urraketa-egoera gainditzeko eragin dituen neurrien berri sistematikoki ematen zaio herritarrari.

Behatokiak ez du kexa anonimorik onartzen baina konfidentziasun osoz jokatzeko du eta ez du herritarren daturik zabaltzen, ez eta erakundeak edo administrazioak berariaz eskatuta ere.

Esan behar dugu Behatokian kexa jartzeak beti dituela ondorioak. Kasu batzuetan, urraketa-egoera gainditzeko neurriak hartzea bultzatzen delako; beste batzuetan, berehalako neurri hartzea ez badakar ere, egoera hobetzeko presio egiten delako eta, azkenik, euskal hiztunen hizkuntza-eskubideen benetako egoeraren isla eta neurgailua izanik, eskubide horien bermean eta euskararen normalizazioaren bidean hutsuneak identifikatzen dituelako.

Hizkuntza-eskubideak urratu zaizkionean herritarrak sentitu duen mina, gutxiespena eta bazterkeria ezin ditugu hemen islatu baina, banaka-banaka, jazotako gertaera guztiek, agerian uzten dute gaur egun euskararen lurraldean euskaldunok euskaraz bizitzeko ditugun zailtasunak eta oztopoak eta pairatzen dituen hizkuntza-eskubideen urraketak.

Euskal Herriko Iparraldean nola Hegoaldean, administrazio maila guztiekin (Estatu administrazioekin, administrazio autonomikoekin, toki administrazioekin) eta sektore sozioekonomikoarekin zerikusia duten gertaerak helarazi dizkigute herritarrek 2012 urtean zehar.

Gertaera horiek guztiak errealitatearen zati bat, lagin bat besterik ez dira. Herritarrek ez dituzte salatzen egunerokoan pairatzen dituzten urraketa guzti-guztiak, bereziki mindu dutenen edota askotan errepikatzen direnen berri ematen dute soilik. Izan ere, mediku kontsultan euskaraz aritzeko eskubidea bermatu ez zaiolako, errenta aitortzea euskaraz ezin izan duelako egin, edota erantzun txar bat jaso duelako Behatokira jotzen duen herritarrak, egunaren buruan, beste hainbat egoeretan ikusi du urraturik hizkuntza-eskubidea. Baina ezin euskaraz bizitzeko oztopoak aldi oro eta etengabeki salatzen bizi.

Horrela bada, Behatokian jaso ditugun gertaera horiek guztiak errealitatearen zati bat, lagin bat besterik ez dira, baina euskal hiztunen benetako egoerara eta egunerokoan aurkitzen dituzten zailtasunetara gerturatzeko gaituzte.



PALESTINA: LURRA ETA BKEA



الارض و السلام

Euskaraz
biziti
nahi dut

1. OSASUNGINTZA

OSAKIDETZAREN EUSKARA PLANAK LEHENTASUNEZKOTZAT JOTZEN DITUEN ARLOETAN GABEZIA NABARIAK EUSKARAZKO ZERBITZUAN.

Osakidetzak 2005 urtean onartu zuen Euskara Planean, harrerako unitateak eta lehen arretako zerbitzu-unitateak familia medikuak, erizain, pediatra... lehentasunekoak badira ere, larriak dira honen inguruan jasotzen diren keak. Egoera ez da urtez urte aldatzen eta herritarrek, askotan, ezin dute egokitu zaien pediatra, medikua, erizaina eta abarrekin beren hizkuntzan mintzatu. Ematen diren egoerak ez dira batere erosoak: gaztelania ez dakiten umeei pediatra erdaldunak izatea, edo osasun zerbitzu bat jasotzera doazen herritarrak, atea gurutzatzen denetik azken agurra arte den-dena gaztelaniaz egitera behartuak izatea.

Toki desberdin eta zerbitzu mota askotan gertatu da egoera hau 2012an eta emandako erantzunen arabera gogor lan egin beharko dugu egoera horiek iraultzeko. Errenteriako Iztietaiko anbulatorioan, esate baterako, 3 pediatra daude baina bakar batek ere ez daki euskaraz. Beraz, oso urrun gelditzen zaizkigu zoritxarrez HEDUren 12.1. eta 16. artikulua.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

12. artikulua. 1.- Gizaki orok eskubidea du alor publikoko jarduera guztiak bere hizkuntzan egiteko, baldin eta bera bizi den lurraldeko bereko hizkuntza bada.

Egoera hau, batik bat, Euskal Autonomia Erkidegoan salatu da. Nafarroan ere horrelako egoerak gertatu gertatzen dira, zoritxarrez, baina arrazoï ezberdinengatik gutxiago dira kea jartzen duten herritarrak. Nafarroan agian barneratuago dago osasun arreta euskaraz jasotzeko ezintasuna eta ondorioz kea jartzea ere gehiago kostatzen zaie herritarrei.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

16. artikulua. Hizkuntza-komunitate bateko edozein kidek eskubidea du bere hizkuntzan erlazionatzeko eta harrera izateko hizkuntza hori berezkozat duen lurraldean bere baitan dauden botere publikoen, eta administrazio-dibisioen zerbitzuen aldetik, zentralak, lurraldekoak, tokikoak hala lurraldez gaindikoak izan.

Hizkuntza eskubideen zein lege-babesaren kontzientziak edota Behatokiaren beraren ezagutzak zerikusia izan dezake kea kopuruaren ezberdintasun horretan. Dena dela, kea gutxiago jaso arren, urraketak sistematikoa eta orokorra izaten jarraitzen du eta jakin badakigu, izan ere, milaka langile dituen Osasunbideak euskara dakiten profesionalak gutxi batzuk besterik ez dira.

HIZKUNTZA HAUTUA BERMATU EZ, BESTE ZENTRO BATERA ALDATZEKO IRADOKI ETA, KASU BATZUETAN, BAITA TRATU BIDEGABEA ERE.

Bereziki aipatu nahi ditugu Amezketan eta Donostiako Groseko anbulatorioan eman ziren egoerak. Amezketan herrira bidali zuten ordeko familia-medikua ez zen euskalduna. Emandako arrazoia, garai hartan zerrendetan hizkuntza-eskakizuna zuen medikurik libre ez egotea.

Ildo beretik doa Donostiako Groseko anbulatorioan paziente batek bizi behar izan zuen egoera: espezialistarengana joan behar eta euskalduna nahi zuela esan zuen bere osasun etxean. Han ezin zutela hori jakin esan zioten eta azkenean, egokitu zitzaion otorrinoa erdalduna zen. Herritarrak euskaraz erantzun zion honek egindako galderari eta gaztelaniaz egin behar zuela esan zioten bai medikuak nola erizainak, bestela, handik joateko aginduz. Medikua segurtasun arduradunaren bila joan zen eta erizainak aitortu zion herritarrari bera euskalduna zela. Segurtasun arduraduna ere ez zen euskalduna. Honek arreta zerbitzura lagundu zuen eta arreta zerbitzuko arduradunak itzultzaile lana egitea eskaini zion herritarrari. Honek onartu zuen baina medikuak ez eta, ondorioz, herritarra kontsulta pasa gabe gelditu zen.

Beste batzuetan, osasun arreta euskaraz jaso nahi duen paziente horiei eskaintzen zaien aukera bakarra beste zentro batera joatea da, horrek suposatzen dituen eragozpen guztiakin (hitzorduaren galera, atzerapena, desplazatu beharra...).

OSASUN ARLOKO LAN HIZKUNTZA GAZTELANIA DA. PROFESIONALAK ETA BITARTEKO MATERIALAK EZ DAUDE EUSKARAZ LAN EGITEKO PRESTATUTA.

Gaixo edo erabiltzaileez gain, langile euskaldunek ere pairatzen dute egoera baztertzailer hau. Gaztelaniaz lan egitera behartuta daude. Arduradunek eguneroko lana egiteko luzatzen dizkieten mota askotako bitartekoak ez daude euskaraz: langileendako gidak, programa informatikoak -Osabide-, txostenak... Aipatzekoak dira mediku parteak ere. Inon idatzita ez dagoen arren, medikuek mediku-partea gutxienez gaztelaniaz idatzi behar dute, txanda aldaketaren batean mediku erdaldun elebakarra egokitu daitekeelako eta mediku euskaldun batek mediku-partea euskara hutsean idatziz gero, mediku erdaldunak ez duelako ulertzeko gaitasunik. Mediku batzuk parteak ele bietan idazten hasi ziren Donostiako ospitalean baina eguneroko dinamikan azkenean etsi eta partean gaztelaniaz idaztera itzultzen dira, zergatik eta hainbat mediku beren zerbitzua behar bezala eskaintzeko gaitasun nahikorik ez dutelako, alegia, EAEko bi hizkuntza ofizialak menperatzen ez dituztelako.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

17. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du lurraldeko hizkuntzan eskura izateko eta eskuratzeko dokumentazio ofizial guztia, paperezko inprimaki eta ereduak, euskarri informatikoan daudenak edo bestelakoak, eta halaxe eskainiko zaizkie herritarrei hizkuntza hori berezkoa den lurraldeetan gertatzen diren harremanetan.

Bien bitartean, Osakidetzako zerbitzuetan euskaldunok diskriminatuak izan ez daitezen erabakia hartzeko aukerak ez dira baliatu eta agintariek kontrako norabidean eman dituzte urratsak 2012an. Izan ere, Osasun sailburuaren

hitzetan, Osakidetzaren azkarregi euskalduntzen ari zela iritzita, azterketa ereduak aldatu egin zen 2011an euskara erabakigarria ez izateko. Horrela, euskarari erabakitze ahalmena jaitsi egin zaio 2012an egin den lanpostu-eskaintza publikoan.

Bada, Osakidetzaren lan eskaintzak, berriro ere, herritarrei zerbitzua euskaraz emateko dituen ezintasunak areagotuko ditu.

HIZKUNTZA PAISAIAN, IRUDI KORPORATIBOETAN, EUSKARRI IDATZIZ ETAN EUSKARA BAZTERTU EGITEN DA ORAINDIK.

Berdin Nafarroan nola Euskal Autonomia Erkidegoan. Nafarroan urraketa sistematikoa da: hizkuntza-paisaian, zitazioetan, gutun-azal eta gutunetan, logoak, helbideak, informazio-kanpainak... Nafarroako Osasun Departamentuak ez dio inongo jaramonik egiten HEDUren 17.2. artikuluari.

Nafarroako Osasun Departamentuak ez dio herritarrek paratutako kexa bakar bati ere erantzun. Horrek, ez ditu herritarrek helarazitako urraketa egoerak estaltzen, ordea: erradiologia zerbitzuetik bidalitako galdetegia gaztelania hutsean jasotzea; Osasun-txartela eta honekin bidalitako gutuna euskaraz ez; baja-agiria, zitazioa, logoa, txanda hartzeko papertxoak, gutun-azaleko helbidea eta abar gaztelaniaz baino ez...

Euskal Autonomia Erkidegoan ere, asko izan dira 2012ko kexak zentzu honetan: pazienteei Gabonetako menua jakinarazteko orria 8 hizkuntzatan baina euskaraz ez, asebetetze inkestak gaztelania hutsean, euskarazko errotulu akasduak, web-orri bidez kexa bat jartzeko aukerarik ez, alabaren ikastetxera eramateko gaixotasun bati buruzko informazioa gaztelaniaz baino ez, B+I+O EUSKO FUNDAZIOAREN irudi korporatiboa gaztelania hutsean...

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

17. artikulua. 2.- Botere publikoek eskura izan behar dituzte lurraldeko hizkuntzetan formularioak, paperezko inprimaki eta ereduak, euskarri informatikoan daudenak edo bestelakoak, bai eta hizkuntza hori berezkoa den lurraldeei dagozkien zerbitzuetan herritarrei eskaini ere.

TEKNOLOGIA BERRIEN BIDEZKO ZERBITZUA EZ DA BERMATZEN EUSKARAZ.

Ahozko arreta, aurrez aurrekoa, ez bermatzeaz gain, teknologia berriak martxan jarri eta egoerak ez du hobera egiten. Internet bidezko zitazioetan arazoak euskarazko bertsioarekin, tele-laguntza, erantzungailuak, -Orain zerbitzua-hizkuntza hautatzeko aukera eman bai baina mezua gaztelaniaz, webgune batzuetan informazioa euskaraz ez...

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

40. artikulua. Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere hizkuntza-sistemari egokitutako informatika-ekipamenduak, eta bere hizkuntzako tresneria eta produktuak eskura izateko, teknologia horiek eskaintzen duten ahalmen guztien onura atera ahal izateko, bai autoadierazpenari, hezkuntzari, argitarapenari edo itzulpenari dagokienez, bai eta, oro har, informazioaren tratamenduari eta kultur hedapenari dagokienez ere.

Teknologia bidezko zerbitzu berri hauetan ere ez dira guztiz bermatzen euskaldunen eskubideak. Azpimarratzekoa da bestalde, teknologia berrien kasuan euskarazko zerbitzua bermatzea erraz egin daitekeen zerbait dela.

SEKTORE PRIBATUAN EGOERA OSO ANTZEKOIA DA.

Bai, sektore pribatuan ere herritarrek bideratutako kexak ildo beretik doaz Euskal Herri osoan: harrera ezin euskaraz jaso, telefonozko arreta gaztelaniaz, profesionalak erdaldunak, hizkuntza paisaia eta mota askotako idatzizko euskarriak, teknologia berriak... erdaraz.

Hala ere, kasu batzuetan lorpenak ere izan dira herritarrek jarritako erreklamazioen ondorioz. CAPIO klinikak, esate baterako, webgunea euskaratzeko neurriak hartuko dituztela erantzun zigun, horretarako data jarritz: 2013ko udazkena. Ikusiko dugu hitza betetzen duten.

OSAKIDETZAK BERAK AITORTZEN DUEN MODUAN, BIDE LUZEA DAGO EGITEKO: PROFESIOALEN FORMAZIOAN, PROTOKOLOETAN, HIZKUNTZA-PAISAIAN, LAN-TRESNAK EGOKITZEN, ZIRKUITU EUSKALDUNAK SORTZEN, ...

Osakidetza zuzentzen duten arduradunek zein langile edo profesionalek ere egoera honen guztiaren kontzientzia badute. Ohikoa da Behatokiak bideratutako kexen aurrean egoeraren aitzakia baliatuz erantzutea:

- Tamalez, aitortu beharra daukagu hainbat esparrutan oraindik bide luze daukagula egiteko, baina arlo honek duen garrantziaz ohartuta, langileen euskararen ezagutzan eta erabileran ahalegina egiteko asmo sendoari eusten diogu.
- Helburua betetzen da gure kasuan, baina kontuan izanda pertsona bakarreko lanpostua dela txanda batzuetan nahitaezkoa da atentzioa ez-euskalduna izatea txanda horretan lanean ari den pertsona zerbitzuko erdaldun bakarra bada.
- Horren arrazoia zera izan zen: garai horretan aldi baterako kontratazio zerrendetan hizkuntza-eskakizuna zuen medikurik ez zegoela libre.
- Osakidetzan ahaleginak egiten ari gara euskarak gure zerbitzuetan dagokion tokia izan dezan. Hori dela eta, euskara plana abian jarri ondoren, bertan adierazitakoa ezarri genuen gure zentroetan, eta horrela eskatu dugu enplegu publikoko eskaintzetan. Dena den, badaude arazo batzuk, gaur egun konponezinak. Besteak beste, zenbait denboralditan artatzen dena, hau da, behar den adina profesional ez goatea, ez euskalduna, ezta erdaldunik ere.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

47. artikulua. 2.- Hizkuntza-komunitate bateko edozein kidek eskubidea du bere hizkuntzan eskura izateko lanbide-jarduera egikaritzeko baliabide guztiak, hala nola kontsultarako dokumentuak eta liburuak, jarraibideak, formularioak eta informatika-ekipamenduak -tresnak eta -produktuak.

- Dena den, badaude arazo batzuk, gaur egun konponezinak. Besteak beste, zenbait denboralditan gertatzen dena, hau da, behar den adina profesional ez egotea, ez euskalduna, ezta erdaldunik ere. Hori larria izaten da medikuen kasuan batik bat, eta hori da udako eta aste santuko oporraldietan maiz gertatzen dena; apirilaren 9an gertatu zena hain zuzen ere.
- Hala ere, zenbait gairen inguruan, saio kliniko en edo nolabaiteko konplexutasuna duten gaien aurkezpenetan, agian gure formazioan euskarak izan duen presentzia urriaren ondorioz, euskaraz aritzeko kikildu egiten garela onartzen dugu.
- Gaur egun Osakidetzan lehen mailako atentzioan pediatria plazak betetzeko arazo larria dugu, are gehiago pediatria elebidunak aurkitzeko.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

52. artikulua. Gizaki orok eskubidea du lan-jarduerak eta lanbideak lurraldeko berezko hizkuntzan egiteko. Salbuetsi egingo dira lanpostuari dagozkion funtzioek beste hizkuntzen erabilera eskatzen duten kasuak, esate baterako, hizkuntza-irakasleak, itzultzaileak, turismo-gidariak.



2. JUSTIZIA

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN LAN-HIZKUNTZA GAZTELANIA DA.

Kexek erakusten dutenez, EAE eta Nafarroako epaitegietako jarduera administratiboan lan hizkuntza nagusia gaztelania da: jakinarazpenak gaztelania hutsean bidaltzen dituzte nahiz eta prozedurak euskaraz abiatu; inprimaki elebidunak gaztelaniaz bakarrik betetzen dituzte eta horrela hartzaileak gaztelaniaz irakurtzera behartzen dituzte, euskarazko bertsioan (dagoenean) ez baita agertzen jakinarazi nahi den informazioa; kartelak, ohar idatziak (ordutegia adierazteko adibidez) gaztelania hutsean idatzita egoten dira, eta zerbitzua euskaraz emango duen langilerik ez egotea ere maiz gertatzen den gauza da.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

8. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du baliabide propioak antolatu eta kudeatzeko, gizarte-funtzio guztietan bere hizkuntzaren erabilera ziurtatzeko helburuarekin.

ERREGISTRO ZIBILETAN OZTOPOAK IZATEN DIRA ORAINDIK EUSKAL IZENEKIN.

Herritarren, euskaltzaleen eraginez Erregistro Zibiletan gauzak dezente hobetu direla aitortu behar den arren, euskal izenekin zerikusia duten tramiteetan erresistentziak eta mesfidantza suma daitezke oraindik ere. Erregistro Zibilaren erregelamenduak onartuta dauka izen propioen aldaketa. Hala ere Gasteizko herritarrari ez diote onartu alabari izena aldatzeko eskaera, proposatzen duen aldaketa huskeria dela eta aldaketa fonetikorik ere ez dakarrela argudiatuz. Ez da horrela ordea, herritarrak Euskaltzaindiak eta EHUko Filologia fakultateko irakasleek sinatutako agirien bidez frogatu duen bezala, aldaketa fonetikoa egon badago. Hala ere, erregistroak ez dio aldaketa onartu nahi.

LEGEA BERA EPAIKETAK EUSKARAZ EGITEKO OZTOPO DA.

Jarduera judizialari dagokionez, prozedurak euskaraz burutu nahi izatea oztopoz beteriko bide bati ekitea da. Oztopo nagusia legea bera da. Espainiako Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231 artikulua arabera nahikoa da partetako batek euskaraz ez dakiela eta indefentsio egoera alegatzea prozedura espainieraz izapidetu behar izateko.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

15. artikulua. 2.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du jardun judizial eta administratiboak, dokumentu publiko eta pribatuak, eta erregistro publikoetan egindako inskripzioak lurraldeko berezko hizkuntzan egiten direlarik, baliozkoak eta eraginkorrak izan daitezen, eta inork ezin dezan argudia hizkuntza hori ez dakienik.

Espainiera Espainiako hizkuntza ofiziala izateaz gain guztiok ezagutu beharrekoa denez, ez dago espainieraz ez jakitea alegatzerik eta hartara euskaraz ez dakien edo egin nahi ez duen pertsona bakar bat egotea aski da, epaiketak gaztelaniaz egiteko edota itzultzaile-interpretariarekin egin behar izateko, nahiz eta kasu askotan itzultzaile-interpretarien lana desegokia izan, eta ondorioz euskaraz deklaratu nahi duenari defentsa-gabezia eragingo dion.

KONTUA ARE GEHIAGO KORAPILATZEN DA NORBAITEK EUSKARAZ DEKLARATU NAHI DUENEAN.

Durangoko instrukzioko 4. epaitegiko epaileak honela adierazi zion euskaraz deklaratu nahi zuen lekukoari: tenemos un problema, eta errieta egin zion euskaraz egin nahi zuela aurrez ez jakinarazteagatik, ez zutelako egoera aurreikusi eta itzultzailezik ez zutelako epaitegian. Arazoa ordea epailearena berarena zen. Idazkari judizialak bazekien euskaraz, eta bere burua eskaini ere egin zuen interprete gisa aritzeko. Abokatuak eta salan zegoen beste pertsonak ere ez zuten inolako eragozpenik

jarri. Lekukoak euskaraz deklaratzear gain deklarazioaren akta euskaraz jaso nahi zuela agertu zuen, idazkari judizialaren aurrean euskaraz deklaratu zuenean akta gaztelaniaz eman ziotelako.

Hori kontuan hartuta abokatuak idazkariak interpretearena egiteko proposatu zuen eta lekukoak sinatu beharreko akta beste egun batean sinatzeko uztea, bitartean itzulpena egin zezaten. Lekukoak ez zuen eragozpenik jarri baina epaileak saioa beste egun batera atzeratzea erabaki zuen interpretea eskatu ahal izateko. Epaileak bere gaitasun eza onartu ez eta atzerapenaren errua lekukoari eragotzi nahi izan zion, gainera.

EPAITEGIETAN EUSKARAZ JARDUN NAHI IZATEAK, IZAN HITZEZ NAHIZ IDATZIZ, ATZERAPENA NOZITU BEHARRA DAKAR EZINBESTEAN.

Bergarako eta Iruñeko epaitegietan behin eta berriz gertatu da euskara hutsean aurkeztutako idazkiak gaztelaniara itzuli arte tramitera ez onartzea.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

20. artikulua. 1.- Gizaki orok eskubidea du justizia-auzitegiak kokatuta dauden lurraldean historian zehar hitz egindako hizkuntza ahoz eta idatziz erabiltzeko. Auzitegiek lurraldeko berezko hizkuntza erabili behar dute barne-jardunetan, eta estatuaren antolaketa judizialaren ondorioz prozesuak hasierako lurraldetik kanpo jarraitu behar badu, hasierako hizkuntzari eutsi beharko zaio.

EAEko Justizia Auzitegitik jakinarazi dute ez dela irregulartasunik ikusi organo judizial horien jardunean, agiriak itzultzera bidali bazituzten, epaitegi horietan euskaraz ez zekitelako eta defentsa-gabeziarik ez sortzeko izan zela, dokumentuak itzultitakoan izapidetzeko onartu eta prozeduraren fase guztiak bete zirela euskarazko agiriak erdarara itzuliz. Justizia alorrean, prozeduren atzerapenak maiz defentsagabezia eragiten duela ahaztuz...

Zerbitzu judizialen gabeziak (profesional euskaldun nahikorik ez izatea) herritar euskaldunen kaltetan.

BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 231 ARTIKULUA OROZ GAINETIK.

Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna sinatu duten lehenengo hamaiken artean dago Espainiako estatua. 1992ko azaroaren 5ean sinatu zuen, eta bederatzi urte geroago, 2001eko apirilaren 9an, berretsi zuen, eta urte hartako abuztuaren leian jarri zen indarrean. Espainiako estatuak hartutako konpromisoen artean honako hauek zeuden:

Erregio zein Gutxiengo Hizkuntzen Europako Ituna

9. artikulua - Justizia

1.- Bermatzea ezen organo jurisdikzionaletan, parteetako batek hala eskaturik, erregioetako zein gutxiengoen hizkuntzetan egiten dutela prozedura.

a) ii. Akusatuari erregioetako zein gutxiengoen hizkuntzan adierazteko eskubidea bermatzea.

a) iv. Aurretik hala eskatu bada, erregioetako zein gutxiengoen hizkuntza horietan idaztea prozedura judizial bati dagozkion dokumentuak, beharrezkoa balitz interpretari eta itzulpenetara joaz, interesdunei gastu gehigarriarik ekarri gabe.

Prozedura zibil eta administratiboetan beste konpromiso hau ere hartu zuen:

b) iii. Baimentzea dokumentuak eta frogak erregioetako zein gutxiengoen hizkuntzan aurkeztea; beharrezkoa balitz interpretari eta itzulpenetara joaz.

Euroitunaren bidez hartutako konpromisoak derrigorrez bete beharrekoak dira, eta hartu dituen Estatuak bere legedian txertatu behar ditu. Hartara, Estatuako legedia hartutako konpromisoak betetzeko oztopo bada, Estatu horrek bere legedia egokitu beharko du hartutako konpromisoak betetzea ahalbidetzeko.

Euroitunaren betetze-mailaren ebaluaketa egiten duen Europako Adituen Batzordeak behin eta berriz egin dio Espainiako Estatuari Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231 artikulua aldatzeko gomendioa. Hizkuntza Eskubideen Behatokiak horixe gogorarazi dio behin eta berriz eginiko gomendioa Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiari, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231 artikulua eta 18/1986 Legea ez dituela urratu argudiatu duenean. Auzitegiak erantzun du legea aldatzeko eskumenik ez duela, botere legegilearen zeregina dela legeak aldatzea.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

20. artikulua. 2.- Edozein kasutan ere, gizaki orok eskubidea du ulertzen duen eta hitz egin dezakeen hizkuntza batean epaitua izateko, bai eta doako interprete bat izateko ere.

Baina, ez al da epaileen zeregina legeak betearaztea? Ez al lukete epaileek Euroituna betearazteaz arduratu behar? Zergatik hobesten dute orduan herritarrak babesik gabe uzten dituen Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikulua eta ez Euroituna, nahiz eta azken hau lerrun handiagokoa izan?

Ez al da prebarkazio delitua, Euroitunaren bidez hartutako konpromisoak betetzea eragozten duela jakinik Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231 artikulua aplikatzen jarraitzea?



3. HERRIZAINGOA

Segurtasuna

SEGURTASUN-INDARREN LAN-HIZKUNTZA GAZTELANIA DA ETA HERRITARRAK GAZTELANIAZ EGITERA BEHARTUAK DIRA.

Bai Espainiako Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak, Espetxezaintzako agenteek, Ertzaintzak, Foruzaingoak zein tokian tokiko Udaltzaingo askok ez dute euskaraz lan egiten eta gainera, herritarrei halaberrez gaztelaniaz eginarazten diete. Zentzu horretan azpimarragarria da 1348-2012 espedientea, presoek Gabonak zoriontzeko euskaraz zer idatz dezaketen mugatzeraino iristen baita, erantzunean zirkularra banatzera ez zirela iritsi badiote ere.

Bestelako adibiderik ere badugu, besteak beste, Nafarroan Foruzainekin gertaturikoa. Foruzain batek herritarrari identifikatzeko eskatu zion gaztelaniaz. Herritarrak zenbakiak euskaraz esan eta hark gaztelaniaz esateko eskatu zion. Orduan herritarrak 10eraino zenbatzen ez ote zekien galdetu zion gaztelaniaz eta hark nahi beste zekiela kontatzen erantzun zion, euskaraz. Hala ere, Foruzainak zenbakiak gaztelaniaz esateko eskatu zion behin eta berriz.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

15. artikulua. 1.- Hizkuntz komunitate orok eskubidea du bere hizkuntza ofizialtzat erabilia izan dadin bere lurraldearen barruan.

Esanguratsua da ere, herritarra Iruñeko Udalaren Segurtasun Alorrean izan zeneko kasua. Hiru langilerekin egotea suertatu zitzaion, hirurei euskaraz egin eta hirurek gaztelaniaz egiteko eskatu zioten, euskaraz zekien langileren batekin egoteko aukerarik eskaini gabe.

HERRITARREK EUSKARAZ EGINDA ERE, SEGURTASUNEKO AGENTEOK GAZTELANIAZ BURUTZEN DITUZTE AHOZKO ZEIN IDATZIZKO JARDUNAK.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

15. artikulua. 2.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du jardun judizial eta administratiboak, dokumentu publiko eta pribatuak, eta erregistro publikoetan egindako inskripzioak lurraldeko berezko hizkuntzan egiten direlarik, baliozkoak eta eraginkorak izan daitezen, eta inork ezin dezan argudia hizkuntza hori ez dakienik.

Ertzaintzarekin, Foruzainekin, nahiz Iruñeko Udaltzainekin izandako zenbait gertaeraren berri jaso dugu. Herritarrek eskaerak, inprimakiak zein bestelako idazkiak euskaraz aurkeztu arren, horien ebazpenak edo erantzunak nahiz herritarrek aurkeztutako idazkietatik abiatutako salaketa-aktak eta abar, ez dizkiete euskaraz luzatzen herritarrei.

Edo herritarrak zerbitzua euskaraz jaso ez duelako jarritako erreklamazioa euskaraz aurkeztu arren, euskalduna ez den agenteak deitu izan dio herritarrari argibideak eskatzeko. Bai EAeko eta bai Nafarroako

herritarrek 112 larrialdi zenbakira deitu eta ezin izan dute behin baino gehiagotan euskaraz aritu.

Euskaraz artatua izan nahi duzula esanez gero, kasurik hoberenean, itxoin egin behar izaten da langile euskaldun batekin hitz egiteko eta, larrialdi zerbitzu bat dela kontuan izanik, ez da berankeriekin ibiltzeko egokiera. Bestalde, jasotako erantzunetan txanda guztietan gutxienez euskaldun bat badela jakinarazten badute ere, kexak egoteak agerian uzten du ez dela kasu guztien hori bermatzen.

EUSKAL HIZTUNEKIKO BEGIRUNERIK EZ.

Hizkuntza-paisaia, ahozko arretan, esku-orri, informazio-orri eta oro har idatzizko euskarrietan, web orrietan... ez da euskararik izaten maiz, eta dagoenean, apur hori traketsa izaten da batzuetan.

Badira euskara desagerrarazi egin dituzten kasuak ere. Besteak beste, Ertzaintzaren autoetan herritarrek gehien ikusten duten aldean, eskuinekoan, Policía besterik ez da agertzen eta Barañaingo Udaltzainen arropa berrietan ere ez da Policía besterik agertzen. Edo Zaballako presondegi berriko hizkuntza-paisaia bera ere gaztelania hutsean da.

ERTZAINZAK URRATS BAT EGIN ETA BIGARREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA ZEHAZTU DU.

1998an, atzerapen handiz, heldu zen Ertzaintza Euskalduntzeko Dekretua. Aipatu Dekretuaren epea amaituta, 2003an zehaztu behar zen 2. hizkuntz eskakizuna izango duten lanpostuak. Bada, bederatzire urteko atzerapenarekin, 2012an, onartu da 2. hizkuntz eskakizuna abian jartzeko dekretua.

Ez dio lanpostu guztiei eragingo, ez dago argi zein languneri ezarriko zaion eta, eskakizun horrek bermatzen duen hizkuntza-gaitasuna bera, ez dago oso argi.

Horrela bada, neurri honekin agenteek euskaraz komunikatzeko gaitasun hobea izatea espero badaiteke ere da, ikusteke dago herritarrekin duten harremanetan izango duen isla.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

16. artikulua. Hizkuntza-komunitate bateko edozein kidek eskubidea du bere hizkuntzan erlazionatzeko eta harrera izateko hizkuntza hori berezkozat duen lurraldean bere baitan dauden botere publikoen, eta administrazio-dibisioen zerbitzuen aldetik, zentralak, lurraldekoak, tokikoak hala lurraldez gaindikoak izan.

Trafikoa

TRAFIKOKO JARDUNETAN ERE EUSKARA BAZTERTU EGITEN DA

Espainiako administrazioaren arloan, Foruzaingoan, Ertzaintzan eta baita Udaltzaingoan ere euskara baztertua dago trafikoari loturiko jardueretan.

Maiz, Espainiako administrazioaren alorrean bereziki, egoitzetako hizkuntza-paisaia ez da euskaraz izaten eta Foruzainen egoitzetan ere horrelakoak aurki daitezkeela dioten kexak ere jaso ditugu. Isunaren jakinarazpenak, bai agenteak herritarrari eskura emandakoa nola etxean postaz jasotakoak gaztelaniaz izaten direla erakusten duten kexen berri ere izan dugu.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

17. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubide du lurraldeko hizkuntzan eskura izateko eta eskuratzeko dokumentazio ofizial guztia, paperezko inprimaki eta ereduak, euskarri informatikoan daudenak edo bestelakoak, eta halaxe eskainiko zaizkie herritarrei hizkuntza hori berezkoa den lurraldeetan gertatzen diren harremanetan.

Ahozko zerbitzua euskaraz jaso ezin izan duten herritarren kexak ere jaso ditugu eta Iruñeko Udaltzainek autoetan utzi ohi dituzten Autoa erretiratzeko oharretan ulean uneko datuak ez dira euskaraz idatziak egoten.

ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOARENTZAT ESPAINOLEZ JARDUTEAK EUSKAL HIZTUNEN ETA ERDAL HIZTUNEN ARTEKO BEREIZKERIA ERAGOZTEN DU.

Horixe adierazi digu DGTko Kalitate eta Gai Orokorren Zerbitzuko Buruak. Hain zuzen ere, Espainiako Estatuko Administrazioarentzat gaztelania ezagutu beharreko hizkuntza da, eta zenbait kasutan, baita

erabili beharrekoa ere, euskara ez bezala. Bere hitzetan, euskara ofiziala izanen da zenbait tokitan, baina ez nahitaez ezagutu beharrekoa eta jakinarazpen ofizialetan ez du gaztelania baztertu behar.

Gaztelaniaz jarduteak euskal hiztunen eta erdal hiztunen arteko bereizkeria eragozten du, eta herritar guztiek ulertzea errazten du, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatuz.

Argudio horren ildo beretik doa, agiriak euskaraz aurkezteko aukera autonomia erkidegoetako egoitzetara mugatzen dela dioen erantzuna: aitzakia hori baliatuz herritar bati diru-laguntza ukatu diote eskaera euskara hutsean aurkezteagatik.

Gaztelaniaren lehentasun eta nagusitasun juridikoa, euskarazko grafia ofizialak ez erabiltzeraino iristen da. Izan ere, oraindik aurki dezakegu GIPUZKOA beharrean GUIPUZCOA darabilen adibiderik. Esaterako, Gipuzkoako herritarrak Gipuzkoako Trafikoko Buruzagitza probintzialetik herritarrak jaso zuen gutunean.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

32. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere lurraldeko toki-izenak bere hizkuntzan erabiltzeko, ahoz eta idatziz, esparru pribatuan, publikoan nahiz ofizialetan.

FRANTZIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK EUSKARAZ IDATZITAKO TXEKEA EZ DU ONARTU.

Herritarrak euskaraz idatzitako txeketa aurkeztu zuen autoko karta grisa eskuratzeko. Bada, Baionako Suprefeturako zerbitzuek ez diote txeketa onartu; atzera bota diote, frantsesez idatzitako txeketa aurkeztu behar duela esanez. Horrelako jarrerak agerian uzten dute frantses administrazioak ez duela euskararen erabilera onartzen eta ondorioz euskaldunek ukapena eta bazterkeria pairatzen segitzen dute.



4. HEZKUNTZA

Publikoa

ESPAINIAKO ESTATUAK EZ DITU EUROITUNEKO KONPROMISO OROKORRAK BETETZEN.

Horren adierazgarri dira jaso ditugun ondoko kekek: Iruñeko UNEDen egoitzan ez dagoela harrera euskaraz egiteko gai den langilerik dioena edo bertako errotulazioa euskaraz ez dagoela salatzen duena. Hala ere, hori baino larriagoa da urtez urte errepikatzen den errealitatea: irakasgai bat bera ere ez da euskaraz eskainzten.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

24. artikulua. Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du erabakitzeo zein mailatan egongo den bere hizkuntza, hala irakas-hizkuntza nola irakasgai gai, ikasmaita guztietan: haur hezkuntza, lehen mailako hezkuntza, bigarren hezkuntza, lanbide heziketa, unibertsitatea eta helduen hezkuntza.

BAIONAKO ERROBI UNIBERTSITATEAN EUSKARAZKO ESKAINTZA HUTSAREN HURRENGOA DA

Baionako Errobi Unibertsitatean ez da ia deus ere ikasten ahal euskaraz. Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Xiberoan ikasle euskaldunei ez zaie bermatzen unibertsitatean ikasketak euskaraz egiteko eskubidea. Eta horrez gain, kultura-egitarau batean ia ikusezin dago euskara.

EZIN BAXOA AZTERKETA EUSKARAZ EGIN.

Baionako Etxepare Lizeoan unibertsitate aurreko ikasketak euskaraz egiten dituzte ikasleek baina unibertsitarera sartu aurreko azterketa, baxoa, ezin dute euskaraz egin eta egun euskaraz pasatzeko eskubidea aldarrikatzen jarraitzen dute. Baxoa erdiesteko azterketak estatu mailakoak dira eta ikasketa guztiak euskaraz egin ostean, Baxoa frantsesez egin beharrak kalte egiten die ikasle euskaldunei.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

25. artikulua. Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du beharrezkoak dituen baliabide pertsonal eta material guztiak eskura izateko, lurralde barruko irakaskuntzaren maila guztietan bere hizkuntzak nahi duen presentzia-maila lor dezan: modu egokian hezitako irakasleak, metodo pedagogiko egokiak, eskuliburuak, diru-iturriak, aretoak eta ekipamenduak, baliabide teknologiko tradizionalak zein berritzaileak.

Hori dela eta ikasleek, Bordeleko Hezkuntza Akademiako Errektoreari Baxoa euskaraz pasatzeko eskaria egiteko gutuna igorri diote. Bestelako ekintzak ere burutu dituzte eta fruituak lortu ere bai: orain arteko Historia-Geografia frogaz gain, 2012an Matematikakoa ere euskaraz egin ahal izatea lortu dute, besteak beste, Seaskari esker.

EAE ETA NAFARROA GARAIKO ZENBAIT IKASTETXETAN EZIN NORBERAREN HERRIAN D EREDUAN IKASI.

D ereduko ikastetxeetan ikasle guztiak D eredukoak direla, irakasle guztiak euskaldunak direla, ikastetxeko atezaina euskalduna dela, eskola-orduko jarduera guztiak euskaraz direla, ikasleek pasa beharreko frogak teknikoak euskaraz direla eta abar suposatzea den arren, hori beti ez dela horrela erakusten dute jaso ditugun kekek.

Izan ere, Irungo D eredu ikastetxe bateko ikasleak B eredu beste ikastetxe batekoekin elkartzeko asmoa dago, Zizurko Institutuan D eredura euskaraz ez dakien ordezkari irakaslea igorri dute Espainiar hizkuntza eta Literatura ikasgai eman eta tutore izateko, Irungo beste ikastetxe batean telefonoz deitu eta harrera ez zioten euskaraz egin herritar bati eta Altsasuko DBH eta Batxilergoko ikastetxean D eta A ereduak daude eta bi eredu-tako ikasleak elkartu dituzte gutxienez bitan (jardueran zehar informazio guztia gaztelaniaz jaso behar izan dute ikasle euskaldunek) eta Laudiko BHIIn D eredu ikasleek ez dituzte euskaraz jaso PISA-2012 proba egiteko jarraibideak eta galderak.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

26. artikulua. Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere kide guztiei berezko hizkuntza menderatzeko bidea emango dien hizkuntza izateko, ohiko erabilerei dagozkien gaitasun guztiak barne, bai eta ezagutu nahi den beste hizkuntza baten ezagutza osoa menderatzeko ere.

Nafarroan bada are egoera larriagorik. Vascuencearen Legeak ezartzen duen zonifikazioaren ondorioz, egun, Nafarroa hegoaldeko ikasle askok ezin dute norberaren herrian D ereduan ikasi. Murgiltze-ereduan ikasi ahal

izateko inguruko herrietara joan beharrean aurkitzen dira, kilometroak egitera beharturik daude haur horiek txiki-txikitandik, garraio eta jantoki-gastuak familiek euren gain hartuz. Ehunka kilometro astean, milaka eta milaka kilometro urtean. Errepidearen arriskuak, kilometro horiek gasolinan eragiten dituzten kosteak, ez dagozkien eskolara joateagatik jangelako gastuak, denbora joan-etorrietan... Familia hauek bidesari gehigarria ordaintzen eta injustizia bat jasaten ari dira bizi diren tokian bizitzeagatik.

IKASLE, HEZKUNTZAKO LANGILE ETA ERAGILE EUSKALDUNAK EZ DIRA LEHEN MAILAKOAK ADMINISTRAZIOARENDAKO.

Horixe erakusten dute jaso ditugun kexek. Hezkuntza Saileko egoitza nagusira zein lurralde ordezkari-tzetara deitu eta herritarrek ez dute zerbitzua beti euskaraz jaso; hizkuntza-eskoletan ere hutsuneak daude, harrera zein galdetegia gaztelaniaz jaso baitituzte herritarrek. Era berean, EHU zer aldatu asko dago: herritarrek euskaraz idatzitako erreklamazioei gaztelaniaz erantzun izan diete edo beste herritar batek errekurso baten defentsa gaztelaniaz egin behar izan du epaimahaiko kide batek ez zekielako euskaraz.

Donostiako Irakasle-eskolako idazkaritzan ezin da normaltasun osoz zerbitzua euskaraz jaso. Udako ikastaroetan euskarazko eskaintza oso murrizta da. Selektibitateko bi azterketatan itzulpen akatsak egon dira euskarazko bertsioetan.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

29. artikulua. 1.- Gizaki orok eskubidea du hezkuntza bera bizi den lurraldeko berezko hizkuntzan jasotzeko.

Horiez gain, Nafarroako hezkuntzako eragile eta profesionalek ezin dute lana bere osotasunean euskaraz burutu, buletin-elektronikoa, lekualdatze lehiaketa deialdia, bilera deialdia, lantokiak esleitzeko informazio web orria, erresoluzioa, eta abar ez baitizkie euskaraz igortzen Hezkuntza Departamentuak. Era berean, Eskola Kontseiluaren jardueran nagusiki gaztelania hutsean dela erakusten dute jaso ditugun zenbait kexek; besteak beste, antolatutako jardueren berri emateko e-mailak ez dituzte euskaraz igortzen.

IRUÑEKO UDALAK EZ DIO EUSKARAZKO HAUR HEZKUNTZAKO ESKARIARI ERANTZUTEN.

Iruñean 13 haur eskola daude eta horietatik bi baino ez dira euskaraz. Guraso askok euren seme-alabak euskarazko haur eskolan sartu nahiko lituzkete, baina kanpoan gelditzen dira ez dagoelako eskaria bezain besteko eskaintzarik. Iruñeko Udalak hondarreko urteetan haur eskola berriak ireki dituen arren, eskola berri hauetan euskara eskaini beharrean, ingelesa eskaintzen dute bertan. Alegia, eskaririk gabe ingelesezko plaza berriak eskaintzen dira eta eskaria egon arren, ez da euskarazko plaza berririk eskaintzen.



euskara da
hizkuntza

5. ADMINISTRAZIOA

Administrazio orokorrak

ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK TOKIKO HIZKUNTZA DESAGERRARAZI ETA ATZERRIKOA GAILURTU.

Hori da INE (Instituto Nacional de Estadística) erakundearen jokoerak agerian uzten duena, herritarrak helarazitako kexan jakinarazten duenez, datuak gaztelaniaz eta ingelesez zabaltzen baititu. Webgunea ere gaztelaniaz eta ingelesez besterik ezin da kontsultatu. Erakunde honi bideratutako beste hainbat kexa ere jaso dira Behatokian: etxebizitzaren zentsua egiteko derrigor erantzun beharreko inkesta gaztelania hutsean jaso eta euskaraz eskatuta langile euskaldunak ez zegoela erantzun, telefonoz deitu eta gaztelaniaz hitz egin behar eta errolda-txartelean informazio guztia euskaraz ez egotea izan dira herritarrek salatu dituzten urraketak.

Horrekin batera, Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente, Ministerio de Defensa eta Herrialde-ordezkaritzaren sail ezberdinetako errotulu, esku-orri, inprimaki eta karteletatik hasi, webguneekin jarraitu eta ahozko arretara iritsiz, zerbitzua gaztelania hutsean jasotzeaz ere kexatu dira herritarrak.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

12. artikulua. 1.- Gizaki orok eskubidea du alor publikoko jarduera guztiak bere hizkuntzan egiteko, baldin eta bera bizi den lurraldeko berezko hizkuntza bada.

Jokabide honen aurrean, galdera bat egitea baino ez zaigu bururatzen: non geratzen dira Espainiako Estatuak Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Itunean hartutako konpromisoak?

FRANTZIAKO ESTATUAK JAIOTZA UNETIK BERTATIK URRATZEN DITU EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK.

Hori erakusten du Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko Protection Maternelle Infantile egiturak jaio berria zen haurraren familiari frantses hutsean bidalitako jakinarazpenak. Bertan, sortze-agiria ongi jaso zuela eta haurtzainak haurrari bisita egiteko etxetik pasa behar zuela abisatzen zuen. Banatu zitzairen

esku-orrian ere ez zen euskaraz fitzik ageri. Honek ez du Frantziako Estatuaren araudiaren arabera lege-urraketa izaerarik; izan ere, araudi hori kontuan hartuta guraso horiek ez baitute jakinarazpen horiek euskaraz jasotzeko eskubiderik, Frantziako arauak jaiotzen direnetik bertatik sortzen du bereizkeria euskaldunekiko. Hizkuntza Eskubideen Nazioarteko Adierazpena jarraitzen badugu ordea, eskubide-urraketa, bereizkeria, agerikoa da.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

15. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere hizkuntza ofizialtzat erabilia izan dadin bere lurraldearen barruan.

NAFARROAKO GOBERNUAK EZ DU SARIKETA BATERA EUSKARA HUTSEAN AURKEZTEA ONARTZEN, BERE JARDUERA ADMINISTRATIBOA NAGUSIKI GAZTELANIAZ BURUTZEN DUEN BITARTEAN

Inprimakiak, gutunak, oharra, telefono bidezko lokuzioak, gutun-azaletako logo eta irudi korporatiboa oro har, web bidezko izapideak eta abar gaztelania hutsean zabaltzen dituen bitartean, Nafarroako politikari eta kudeaketa publikoari buruzko Martin Azpilkueta sariketarako lanak, ezin dira euskara

hutsean aurkeztu. Nafarroako gobernuak gaztelaniari aitortzen dion erabateko lehentasun eta nagusitasunaren beste ageriko adibide bat.

EAEn, LARRIALDI DEIAREN BESTALDEAN EUSKALDUNIK EZ.

Pertsona nagusien premietarako abian jartzen diren zerbitzuetan ere gabezia nabarmenak atzeman dituzte herritarrek. Behatokira iritsitako kezan herritarrak azaltzen duenez, adineko gurasoei Telelaguntza gailua jarri zioten duela urte batzuk. Aiton-amonak gaztelaniaz ongi moldatzen ez direnez, hasieratik egin zuten tele-laguntza zerbitzua euskaraz jasotzeko eskaera. Bada, sistemak ondo funtzionatzen zuela frogatzeko, botoia zanpatzeko eskatzen zien lehen deia gaztelania hutsean jaso zuten zentraletik.

Era berean, botoia zanpatu ondotik, beste dei bat jaso zuten hau ere gaztelania hutsean eta hirugarren dei bat ere gaztelania hutsean. Adinekoen semea haserretu eta beraiek zerbitzua euskaraz eskatuz betetako fitxa irakurtzeko eta arduradunarekin jartzeko eskatu zuen. Arduradunak deitzen ez zuenez herritarrak botoia sakatu zuen eta bestaldetik berriro ere gaztelaniaz erantzun zioten. Seigarren deia egin arte ez zuen lortu langile euskaldun batekin hitz egitea. Herritar guztiok dugu administrazio publikoarengandik euskarazko zerbitzua jasotzeko eskubidea, hala nola kalitatezko zerbitzua jasotzekoa. Kalitatezkoa eta duina. Egoera honek ez du ez bata eta ez bestea betetzen denik erakusten. Are gehiago, gaztelania menperatzen ez duten adinekoen kasuan, larrialdi egoeretan behar bezala artatuak ez izateko arriskua dutela ere agerian uzten du.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

17. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubide du lurraldeko hizkuntzan eskura izateko eta eskuratzeko dokumentazio ofizial guztia, paperezko inprimaki eta ereduak, euskarri informatikoan daudenak edo bestelakoak, eta halaxe eskainiko zaizkie herritarrei hizkuntza hori berezkoa den lurraldeetan gertatzen diren harremanetan.

HIZKUNTZA PAISAIA EUSKALDUNEKIKO BEGIRUNEAREN ADIERAZGARRI

Gezurra irudi lezakeen arren, oraindik ere trafiko seinale finko eta obretako aldi baterako seinaleetan ez da elebitasuna errespetatzen, seinale horien ardura zeinahi erakunderena izanik ere (Udalak, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua, Frantziako Estatuko Administrazioa). Errotulu eta seinaleak erdara hutsean, edota euskarazko bertsioa tamaina txikiagoan paratzeak, euskal hiztunekiko administrazioek duten begirunea irudikatzen du.

BIDE SEINALEETAN EUSKARA TRABA

Urraketa horiek konponbide erraza dute, hala ere, asko dira oraindik erdara hutsean ageri diren seinaleetako testuak. Batzuetan seinaleak zaharrak direlako da, eta oraindik berriak ez dituztelako. Beste batzuetan, seinaleak berriak dira eta nahita ezabatu da euskara (Audenasa, Iruñeko Udala, Frantziako Autopistetako bide-seinaleak) horretarako legea oinpean hartu badute ere. Ulergarritasuna argudiatu izan dute bideko oharrek gaztelania hutsean emateko, euskara traba dela adierazi nahian edo.

EAEko erakundeek, oro har, ongi hartu dituzte Behatokiaren iradokizunak. Kasu batzuetan egoerak zuzendu dituzte eta, beste batzuetan, konpontzeko neurriak abiarazi dituzte.

Udalak

UDAL ASKOREN LANGILEEN KONTRATAZIO POLITIKAK EUSKAL HIZTUNEN HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETA SISTEMATIKOA ERAGITEN DU.

Zenbait udalek hartutako erabakiek euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzeko urratsak eman beharrean, oztopoak jartzen dituzte. Horren ondorioz, herritarrak dira egunero erabaki hauen ondorioak pairatzen dituztenak. Horren adierazle dira, esaterako, 2012an Nafarroako udal askok Idazkari eta

Kontu-hartzaile lanpostuekin hartutako erabakiak. Kasu askotan euskara ez zen baloratu ere egin. Aipagarrienak Barañain, Antsoain, Eguesibar, Tafalla eta Arangurengo kasuak dira euskara zerbitzua duten herriak izan arren, lanpostua betetzeko deialdian ez baitute euskara baloratu ere egin. Beste batzuetan, Esteribar, Uharte, Burlata, Zizur Nagusia, Lizarra, Berriobeiti eta Orkoingo udalen kasuan, baloratu da baina ez da jakin beharrekoa izan.

Dena dela, egoera bietan euskaldunentzat arazo berbera izango da: plaza langile euskaldun batek eskuratzen ez badu behintzat, legez, ez dute kontuhartzailearekin euskaraz egiteko aukera bermaturik izanen.

Zentzu honetan, merezi du Berriozarko Udalak emandako erantzuna aipatzeak: Berriozarko Udalak euskaraz gero eta zerbitzu gehiago eskaintzeko lan egiten du, hau da, euskara Udalaren zerbitzu-hizkuntza izan dadin, eta horretarako, beste erabaki batzuen artean, hizkuntza-eskakizunak ezarrita ditu bere plantilla organikoan. Hala, euskararen ezagutza derrigorrezkoa da lanpostuen %38an, eta gainerako guztietan euskaraz jakitea merezimendua da. Idazkaritzan eta kontuhartzailetzan langile euskaldunak daude herritar euskaldunek behar duten zerbitzua euskaraz jaso dezaten. Udaleko egoera demolinguistikoa hobetzearekin batera, Udalak plantilla organikoan ezarritako derrigortasunaren proportzioa areagotuko du, eta aztertuko du kexan aipatutako lanpostuetan euskararen ezagutza nahitaezko izateko aukera.

Euskal Autonomia Erkidegoan ere eskubide-urraketa kasu batzuk salatuak izan dira. Hemen herritarrek bideratutako adibide batzuen laburpena: Elorrioko Udalak Bake Epaille berri gisa euskaraz ez dakien pertsona bat proposatu du, Berrizko Udalak garbitzaile posturako kontratatutako pertsonak ez du postuak duen euskarazko eskakizuna betetzen... Eta gai honekin lotutako bestelako egoerak ere eman dira 2012an: Azterketa teoriko eta baztertzaila gaztelaniaz burutu behar izatea Pasaiako Udalean, Gasteizko Udalak CAITB agiria lortzeko langileek frogatzea bat egin behar eta ikasteko banatutako dokumentazio gehiena gaztelera hutsean egotea... edo Ispasterko Udalak antolatutako lehiaketa-oposizio batean gertatu zena. Ispasterko Udalak antolatutako lehiaketa-oposizio batean idatzizko bi azterketa egin zituzten izangaiek.

Bietan azalpenak lehendabizi gaztelaniaz ala gaztelania hutsean eman zituzten eta azterketak ere gaztelania hutsean banatu zizkieten izangaiei. Herritarrak euskarazkoak eskatu behar izan zituen, nahiz eta izena ematerakoan azterketak euskaraz egingo zituela esplizituki adierazia zuen. Azterketako zaintzaileak “ziur zaude?” galdetu zion bi alditan eta badaezpada gaztelaniazko aleak ere utzi zizkion. Azterketa praktikoan gizon berberak eman zituen azalpenak gaztelaniaz eta herritarrari, gainerako

izangaien aurrean nabarmen utziz, gaztelaniaz galdetu zion ea zein hizkuntzatan jaso nahi zituen azalpenak. Herritarrak nahiago zituela euskaraz esandakoan, alemanez eta frantsesez ere moldatzen zela erantzun zion. Azterketa praktikoaren emaitzak gaztelania hutsean argitaratu zituzten Udalaren webgunean.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

21. artikulua. Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du erregistro publikoetako idazpenak lurraldeko berezko hizkuntzan egin daitezen.

Udal arduradunek ez lukete inoiz onartu behar herritar batek azterketak euskaraz egin nahi izateagatik jasandako begirune-eza eta zorrotasun falta.

IRUÑEKO UDALAK EUSKALDUNEKIKO AGERTZEN DUEN BEGIRUNE-EZA OSO AGERIKOA DA

Urteetako jardunak erakusten duenez, Iruñeko Udalak ez du euskara hiriko kaleetan ikusi nahi. Badira oraindik ere, urteetan zehar kexa ugari jaso ondoren, 2012an herritarren salaketa jasotzen jarraitzen duten urraketak. Iruñean oraindik ere badira gaztelania hutsean dauden kale, plaza, estatua, iturri eta abarrak. Are gehiago, zenbait tokitan beste hizkuntza batzuk erabiltzen dira, baina euskara ez. Santo

Domingo azokan eta Paderborn parkean, besteak beste. Kexa hauen guztien aurrean Iruñeko Udalak ez du erantzuten.

Ahozko zerbitzua ere ez dago bermatua. Auzo-unitatera deitu edota Udalaren Segurtasun alorrera joan eta herritarrak ezin izan du euskaraz jardun. AQUAVOXen megafonia bidez zabalduko diren mezuak, eta Udalak antolatutako ekimen batean azalpen guztiak gaztelania hutsean jasotzea ere salatu dute herritarrek. Zio ezberdinetarako banatzen diren baimenak gaztelania hutsean luzatzen dituzte; egoitza elektronikoaren bidez egin beharreko prozedurak ere gaztelaniaz soilik egin daitezke, eta karteletan akatsak idazten dituztenean, Ingurumen-heziketa museoaren kasuan esaterako, uko egiten diote zuzentzeari. Horrelakoxea da Iruñeko Udalak euskaldunekiko agertu duen begirune-eza.

UME SORTU BERRIA EUSKAL IZENAREKIN ERREGISTRATZEA DEBEKATZERA IRITSI DA BAIONAKO HERRIKO ETXEA.

Baionako Herriko Etxeak ñ hizkia eramaten duen haur sortu berrien izenak ez ditu onartzen, frantses alfabetoan horrelako hizkirik ez delako. Gurasoei egin erantzunean, frantsesa dela Errepublikaren hizkuntza ematen zaie jakitera.

Administrazioen informazioa

ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK JENDARTEAN ZABALTZEN DITUEN KOMUNIKAZIO EUSKARRI IA GUZTIETAN URRATZEN ZAIZKIE HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK EUSKALDUNEL.

Herritar guztien artean zabaltzekoak diren liburuxkak, esku-orriak, aldizkariak eta informazio euskarriak gaztelania hutsean zabaltzen dira orokorrean. Ohikoa da ere kanpaina ezberdinetako euskarriak, kartelak, prentsa-iragarkiak, spotak eta abar gaztelania hutsean argitaratzea. Horrela, gizonen eta emakumeen berdintasunaren arteko legea iragartzen zuen publikazio batean, ez du berdintasun printzipioekin jokatu, euskaldunak bazter utzi eta gaztelania hutsean eskuratu baitzuen Nafarroako herritarrak “Ley para la igualdad de mujeres y hombres” liburuxka.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

12. artikulua. 1.- Gizaki orok eskubidea du alor publikoko jardura guztiak bere hizkuntzan egiteko, baldin eta bera bizi den lurraldeko bereko hizkuntza bada.

Kexa honi erantzunez, Hiritarren Arretarako saileko arduradunak jakinarazi zuenez, 500.000 ale argitaratu ziren, horietatik 13.000 euskaraz. Kontuan hartuz, Nafarroako Foru Erkidegoan soilik, 60.000 inguru direla 15 urtetik gorako euskaldunak, Hego Euskal Herri guztirako 13.000 ale argitaratzea ez da herritar euskaldunekiko berdintasunez jokatzeko eta euren hizkuntza-eskubideak bermatzea Emakumeen kontrako bortizkeriari buruzko iragarkia gaztelania hutsean argitaratzeagatik ere helarazi dute herritarrek kexa Behatokira. Honi erantzunez, delegatuak onartzen du epeak oso estuak zirenez, ez zela posible izan hizkuntza koofizialetara itzultzea. Horiek horrela, argi dago Estatuko agintariak herritar guztiak berdintasunez tratatzeko urrats asko eman beharrean daudela.

HERRITARRAK EUSKARAZ, ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA GAZTELANIAZ.

Espainiako Administrazioa herritarrak euskaraz aurkeztutako dokumentuen erantzuna gaztelania hutsean jasotzeagatik lau kexa jaso dira Behatokian. Horrekin batera, gutun-azalean, kalearen eta hiriarren izenak ere ez zeuden euskaraz. Hori azken finean, herritarren euskaraz bizitzeko nahiaren gaintik, gaztelaniaz jakiteko derrigortasuna praktikan jartzea baino ez da, Espainiako araudiak gaztelaniari aitortzen dion erabateko lehentasun eta nagusitasun juridikoaren egikaritzea.

HERRITARREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN DEFENTSAZ ARDURATZEN DEN ESPAINIAKO ARARTEKOA BERA ESKUBIDE URRATZAILE.

Izan ere, Espainiako Arartekoaren webgunean, izapidetze telematiko bidez kexak paratzeko formularioa ez dago euskaraz. Horiek horrela, ez dira harritzekoa erakunde honen jokabideaz kexatzeko herritarrek Behatokira helarazitako kexak, erantzunak, jakinarazpenak eta abar gaztelania hutsean igortzen baitutu. Larria deritzogu herritarren oinarrizko eskubideen defentsan diharduen erakundea bera izatea legea urratzen duena.

FRANTZIAKO ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN EZ DUTE EUSKAL HIZTUNEN INFORMAZIO ESKUBIDEA BERMATZEN.

Frantziako Estatuko erakunde publikoek plazaratzen dituzten euskarriak, informazioak eta publikazioak euskaraz jasotzea oso zaila da, ia ezinezkoa. Euskarari presentzia eskaintzen zaionean, modu sinbolikoan besterik ez da izaten. Halaxe salatu dute herritarrek Behatokira helarazitako kexetan.

Esaterako, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak urtean zehar argitaratu eta hedatu *Pyrenees Atlantiques le Mag* aldizkarian artikulua bakarria dago euskaraz. Era berean, hizkuntza paisaia ez da sistematikoki euskaratua. Beraz, oro har, euskarak ez du lekurik publikoarekiko harremanetan, ez eta hizkuntza paisaian.

EUSKO JAURLARITZAREN SOZIALIZAZIO PUBLIKOAREN MURRIZKETAK EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK KALTETZEN DITU.

Hala arrazoitu du HAZIK, Landa eta Itsas Ingurunearen Garapenerako Korporazioak, El Correion argitaratutako iragarkia gaztelania hutsean zegoelako herritarrek helarazitako kexari erantzunez bidalitako gutunean: aurrekontuetan dituzten murrizketa eta mugatuak diren baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko helburuarekin, publiko erdalduna eta irakurle erdaldunak dituzten egunkarietan iragarkiak gaztelania hutsez, eta euskarazko egunkarian euskara hutsean argitaratzea erabaki du HAZIK.

NAFARROAKO GOBERNUAREN KOMUNIKAZIO POLITIKAK URRATU EGITEN DU EUSKALDUNEN INFORMAZIO ESKUBIDEA.

Webgune korporatiboan euskarazko bertsioa gaztelaniazkoaren bertsio murriztua izatea, Nafarroako Aldizkari Ofizialeko alerta deituriko zerbitzutik mezuak gaztelania hutsean bidaltzea, Vinsa enpresa publikoaren bidez txabeak salgai daudela iragartzeko kartelak gaztelania hutsean paratzea, irudi korporatibo eta errotuluetan euskarari presentziarik ez eskaintzea... urtez urte errepikatzen diren kexak dira. Gertaera hauek euskara bizitza publikotik baztertzea besterik ez dute bilatzen.

EUSKARAK DUEN PRESENTZIA ESKASA EZABATU NAHIAN JARRAITZEN DU NAFARROAKO GOBERNUAK.

Jakinarazpenak, gutunak, ebazpenak eta e-postak sistematikoki gaztelania hutsean bidaltzea da herritarrek gehien salatu dutena. Hau da, Nafarroako Gobernuak elebakartasuna oinarri duen politikari etsi dio beste urte batez. Are gehiago, Nafarroako Gazteriaren Institutuak gazteei begira argitaratzen duen aldizkari ele biduna, gaztelania hutsean bidaltzen hasi ziren eta herritarrek zergatia galdetu zuenean, murrizketak zirela medio, hala erabaki zutela jakinarazi zioten.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

15. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere hizkuntza ofizialtzat erabilia izan dadin bere lurraldearen barruan.

Horra hor, krisi testuingurua baliatuz, Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia are gehiago murrizteko neurria. Jarrera hori agerian uzten duen beste kexa bat ere jaso da Behatokian: Nafarroako

Gobernuak Iruñean zabandu duen Kontsumitzaileen bulegoan gaztelania hutsean ageri da errotulazioa.

NAFARROAKO PARLAMENTUA, GOBERNUAREN BIDETIK.

Erakunde zein eragile ezberdinei Nafarroako Parlamentuak igorritako posta elektronikoko, akordioetako dokumentu, deialdi, jakinarazpen eta abarrak gaztelania hutsean jasotzeagatik kexak jaso dira Behatokian. Nafarroako Gobernuaren komunikazio irizpideei jarraiki, Parlamentuaren komunikazio politikak ere informazio-eskubidea ukatu egiten die euskal herritarrei zein eragileei.

ARABAKO FORU ALDUNDIA LEGE URRATZAILE.

Arabako udal batek onespena eman ziezaioten euskara hutsean bidalitako espediente osoa gaztelaniaz bidaltzeko eskatu zioten Aldundiko hirigintza zerbitzutik. Horrela, euskaraz zerbitzua eman eta lan egitea helburu duen tokiko administrazio bati, legez aitortutako eskubide hori eragotzi eta urratu dio Arabako Foru Aldundiak.

UDAL ETA HERRIKO ETXEAK, HERRITARRENGANDIK HURBILEN DAUDEN ADMINISTRAZIOAK, EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BERMATZETIK URRUN.

Franko dira udal eta herriko etxeen komunikazio-jarduerekin loturik herritarrek Behatokira helarazi dituzten kexak. Horrela, esaterako, ohikoa da erakunde zein herritarrek gutunak frantses hutsean jasotzea. Honekin batera, gonbidapenak, posta elektronikoko bidezko mezuek, ebazpenak, jakinarazpenak, gaztelania hutsean jasotzeaz ere kexatu dira herritarrek zein entitateak. Herritarren artean zabaltzeko informazio-liburuxkak, afixak, kartelak eta abar ere, usu, erdara hutsean argitaratzen dira edo euskarazko bertsioak akatsez beteta daude.

BILBOKO UDALAREN EUSKARA SAILAK BERAK DOKUMENTUAK GAZTELANIA HUTSEAN.

Euskaldunekiko Bilboko Udalak duen begirune-ezaren kezarik adierazgarrienetakoa helarazi zuen herritar batek 2012an Behatokira: Bilboko Udalaren Euskara sailetik euskaraz aritzen den erakunde bati gaztelania hutsean bidali zizkioten dokumentuak. Kexa honi Udal Hilerriko zenbait kartel, Udalarena den Erriberako merkatuaren webgunea eta herritarrari helarazitako erantzuna gaztelania hutsean egotea gehitu behar zaizkio. Are gehiago, kexa hauetako bakar bati ere ez dio erantzun Udalak.



6. EKONOMIA

Ogasuna

ADMINISTRAZIOEKIKO BETEBEHARRETAN HERRITAR EUSKALDUNA EGUNEAN, ADMINISTRAZIOA HERRITAR EUSKALDUNEKIKO ZORRETAN.

Herritarrek eta entitateek zintzo jokatu behar dute zergen kitapenean eta, oro har, administrazioekiko betebeharretan, baina ez dute zintzotasun berarekin jokatzen administrazioek herritarrekiko beharkizunetan. Horrela, herritarrei informazioa emateko sortzen diren informazio-orriak, zerga ezberdinen aitortpena egiteko inprimakiak, agiriak... erdara hutsean bidaltzen dira. Herritar orori zuzendutako informazioa den heinean, urraketa sistematikoa dela azpimarratu behar dugu.

Nafarroako Gobernuak oso jarrera baztertzalea erakusten du euskaldunekiko. Horrela, ez da kasualitatea Ogasun sailarekin zerikusia duten kexa gehienak berari zuzendutakoak izatea. Hizkuntza paisaiatik hasi, txanda hartzeko papertxoetatik pasa eta zergadunei informazioa emateko eta harrera egiteko bulego edo telefonoetan ezinezkoa da zerbitzua euskaraz jasotzea, sistematikoa da euskaldunek bizi duten bazterketa. Horren adibide da herritarrek helarazitako kexa bat: bulego batean Errenta aitortpena egiteko herritarrek artatzeko lau langileetatik bakar bat ere ez zen euskalduna.

Herritarrek helarazitako kexetatik ondorioztatu daitekeenez, Foru Aldundietan ere hutsuneak dituzte herritarrei zerbitzua emateko protokoloetan. Aldundiek kexa guztiei erantzun diete. Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko ezarritako neurrien berri emateaz gain, eskerrak eman dituzte egoeraren berri emategatik, lagungarri zaielako akatsak konpontzeko neurriak hartzeko orduan.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

48. artikulua. 3.- Gizaki orok eskubidea du bere hizkuntza-komunitatearen lurraldean bere hizkuntzan eskura izateko aipatutako eragiketak egiteko behar diren agiriak, hala nola inprimakiak, txekeak, kontratuak, fakturak, ordainagiriak, emate-agiriak, eskaerak eta gainerakoak.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

48. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitatearen lurraldean, herritar orok eskubidea du bere hizkuntza balio juridiko osoz erabiltzeko edozein motatako salerosketa ekonomikotan, esaterako, ondasunen eta zerbitzuen salerosketak, banku-eragiketak, aseguruak, lan-kontratuak eta abar.

Barkamena ere eskatu dute herritarrei sortutako eragozpenengatik eta, horrekin batera, adierazten dute zerbitzuko arduradunekin harremanetan jarri direla mota horretako jakinarazpenak zuzentzeko bidezko neurriak har ditzaten.

Dena dela, bai herritarren salaketa eta baita Aldundien erantzuna aurreko urtetan ere errepikatu izanak, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko ezartzen diren protokoloekin zorrotzago jokatzekeo beharra erakusten du.

Gero eta gehiago hedatzen ari den administrazio telematikoa ere nabarmenak dira hutsuneak. Horrela, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuko web orriak, itxura batean, euskara hautatzeko aukera ematen badu ere, ordainketa helbideratzeko aukeran klikatu eta orriak gaztelaniaz jarraitzen du. Urrats horretatik aurrera hizkuntzaren aukera desagertu egiten da eta gaztelaniaz agertzen da dena.

Azkenik, udaletako Ogasun sailekin betebeharren gaineko informazioa eta ordainketarako inprimakiak bera ere ohikoa da gaztelaniaz jasotzea. Hala erakusten du adibidez, Iruñeko Udalaren jarduna salatzekeo jaso dugun kexak.

Finantzak

NO TE ENTIENDO, ¿ME PUEDES HABLAR EN CASTELLANO? NEKEZ LORTU DAITEKE KUTXA ETA BANKUETAN EUSKARAZ ARITZEA.

Herritarrek helarazi diguten informazioaren arabera finantzen arloan agerikoa da zerbitzua euskaraz jasotzeko dagoen zailtasuna. Horrela, CANen kasuan leihatilan ziren bi langileak euskaldunak ez zirenez, langile euskalduna bere bulegotik atera arte itxaron behar izan zuen herritar batek.

Era berean, erreklamazioa jartzeko eskatu zuen inprimakia ere gaztelania hutsean zegoen. Agurra euskaraz egiteko ere gai ez den langilearen aldetik “No te entiendo ¿Puedes hablar en castellano?” izan da beste batzuetan erabiltzaile euskaldunak jaso duen erantzuna.

Harreman idatzietan ere herritarrei zuzendutako ohar, esku-orri, jakinarazpen, inprimaki, agiri, posta elektronikoa, ohar eta abarrak gaztelania hutsean zabaltzea ere oso ohikoa dela ikusi ahal izan dugu herritarrek helarazi dizkiguten kexetan.

Horrekin batera, erabiltzaile euskaldunekiko harreman idatzietan euskararen hautua ez errespetatu izanak ere kexa bat baino gehiago eragin du.

Oso esanguratsua da bestalde, hizkuntzaren normalizazioaren ikuspegitik konponbide erraza duten hizkuntza-paisaiako elementuak gaztelania hutsean paratzea. Finantza-erakundeek herritarrekiko erakusten duten begirune eskasaren seinale.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

49. artikulua. Gizaki orok eskubidea du bere hizkuntza-komunitatearen lurraldean bere hizkuntza erabiltzeko edozein motatako erakunde sozioekonomikotan, hala nola, laboralak, sindikalak, patronalak, lanbidekoak eta gremioak.

ENTITATE FINANTZIEROEN ERALDAKETA EDOTA BATEGITEEK ATZERAKADA EKARRI DUTE KASU BATZUETAN EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN BERMEAN.

Kutxabank eta La Caixaren kasuan atzerapauso zantzuak atzeman dituzte herritarrek euren kexetan adierazten dutenez: bizi osoan euskaraz aritu den sukurtsalean informazioa ematen jarri duten langilearekin ezin izan zuen euskaraz jardun Kutxabanken. Kutxabankek kexa honi emandako erantzunean dienez, EAEtik kanpoko bi langile hasi berri dira bulego horretan eta ez dute hizkuntza menderatzen. Entitate honetan zuzeneko harrera naiz telefono bidezkoa euskaraz jaso ezin izan dutelako kexa multzoa jaso da Behatokian.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

50. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere hizkuntzak presentzia nagusia izan dezan publizitatean, errotulazioan, kanpo-seinaleztapenean eta lurraldearen irudi orokorrean.

La Caixaren kasuan, berriz, herritarrek salatu duenez, lehen Nafarroako Kutxarena zen kutxazainean eragiteka euskaraz egin zitekeen baina La Caixaren esku geratu denez geroztik ez dago aukerarik.

IPAR EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ IDATZITAKO TXEKEAK BALIORIK EZ.

Ipar Euskal Herriko finantza-erakundeei dagokionez, oso esanguratsua da euskaraz idatzitako txeketa ez onartzea. Euskararen erabilera guztiz baztertzeko dutela erakustez gain, jarrera honekin agerian uzten dute zenbaterainoko begirunea eta balioa ematen dioten entitate hauek euskaldunon hizkuntza-eskubideei. Herritarrekin zuzeneko harremana izan behar duen langilea euskalduna ez izatea ere bezeroekiko begirune eskaseko jokabidea dela agerikoa da.

Merkataritza

ATZERRIKO HIZKUNTZAN BAI, BERTAKOAN EZ: ETIKETAK 31 HIZKUNTZATAN, BAINA EUSKARAZ EZ.

Herritarrek helarazi dizkiguten kexa guztiek eskubide-urraketa izaera dute. Baina Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zenbait kexetan eskubide-urraketa ez ezik, lege-urraketa ere izan da. Erkidegoan Legeak ezarritakoaren arabera, ezaugarri zehatz batzuk dituzten enpresa eta establezimenduetan herritarrek ahozko zerbitzua, ordainagiriak, fakturak eta bestelakoak euskaraz jasotzeko eskubidea dute eta bertako saltokietan errotulu eta karteak euskaraz ere egon beharko lukete. Halere, Behatokian jaso diren kexek erakusten dutenaren arabera, oraindik ere, betebeharrak horiek dituzten establezimendu gehienetan ez da legea betetzen. Are gehiago zenbait kasutan errazago izan da atzerriko hizkuntzan aritzea euskaraz jardutea baino.

Hori erakusten du Espresso kafetegian sartu zen herritarrek euskaraz eskatu ondoren, langilea euskalduna izan ez eta eskaera gaizki ulertuta, frantsesez egin zezakeela azpimarratu zionean. Edota IKEA merkataritza guneak saltzen dituen produktuen etiketak 31 hizkuntzatan egon arren, euskara horien artean agertzen ez denean. FAGOR Etxetresna Elektrikoak Kooperatibaren gailu batzuen erabilera esku-liburuak ere 15 hizkuntzatan idatzita daude, baina euskaraz ez. Kexa honi erantzunez FAGOR Etxetresna Elektrikoak Kooperatibaren Kontseilu Errektorearen Presidenteak barkamena eskatu eta aurrerantzean kontuan hartuko dutela adierazten du.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

50. artikulua. 2.- Hizkuntza-komunitatearen lurraldean gizaki orok eskubidea du lurraldean kokatutako merkataritza-establezimenduen eskaintzen dituzten produktuez eta zerbitzuez ahozko zein idatzizko informazio osoa bere hizkuntzan jasotzeko, hala nola, erabilera-jarraibideak, etiketak, osagai-zerrendak, publizitatea, bermeak eta gainerakoak.

ETIKETETAN PRODUKTUEN GAINKO INFORMAZIOA EUSKARAZ EZ AGERTZEAK EZ DU ONDORIORIK BAINA EUSKARA HUTSEAN ETIKETATZEA ZIGORTU EGITEN DU ADMINISTRAZIOAK.

Euskara hutsean etiketatzeagatik, Eusko Jaurlaritzak Euskal Herria Esnea markaren kontrako prozedura zigortzailea abiatu eta 4.000 euroko isuna jartzea onartezina da. Gaztelania ezartzeko 500 lege baino gehiago dauden bitartean, ulergaitza eta onartezina baita euskara hutsean etiketatzeko aukerarik ez egotea. Gertakari honek ageri-agerian jartzen du hizkuntza ofiziala den eremu administratiboan ere kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunek bizi duten diskriminazio egoera.

ARAU BETEARAZLERIK EZ IZATEAK ERRAZTU EGITEN DU HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK URRATZEA, BAINA ARAUA IZATEAK ERE EZ DU BERMATZEN ESKUBIDEAK ERRESPETATUKO DIRENIK.

Nafarroako edota Frantziako Estatuko administrazioek erabiltzaile eta kontsumitzaile euskaldunen existentzia bera ere ez dute aitortzen eta, oro har, hizkuntza-paisaia, afixak/kartelak eta errotuluak erdara hutsean ageri dira merkataritza-gune handi eta denda erraldoietan. Horrekin batera, orokorrean, ordainagiriak, fakturak, e-postak eta SMSak... erdara hutsean zabaltzen dituzte.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

51. artikulua. 2.- Gizaki orok eskubidea du, bezero, kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa, jendeari zabalduko establezimenduetan informazioa lurraldeko berezko hizkuntzan jasotzeko, hala ahoz nola idatziz.

Edonola ere, arestian esan dugun bezala, legeriarik eza ez da eskubideak urratzeko arrazoi bakarra. Euskal Autonomia Erkidegoan dauden arauak ere ez dira beti errespetatzen, eta ondorioz, asko dute oraindik hobetzeko EAeko establezimenduen, idatzizko zein ahozko

zerbitzua euskaraz bermatzeko betebeharrari ez baitzaio zuzen erantzuten. Lege urraketa horien inguruan esan beharra dago, EAEn beste eskubide batzuk urratzen direnerako legeak zigorrak aurreikusten baditu ere, ez dela gauza bera gertatzen hizkuntza-eskubideak urratzen diren kasuetarako. Horretarako aukera batzuk ireki ziren 2008an baina ezerezean geratu dira 2012an, hizkuntza-eskubideen urraketek ez baitute zehapenik izango.

MERKATARITZA TXIKIA: LEGE URRAKETARIK EZ HIZKUNTZA-ESKUBIDE URRAKETAK BAI.

Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako kontsumitzaile euskaldunek ez dute inolako lege-babesik hizkuntza-eskubideei dagokienez. EAEn, berriz, indarrean den 123/2008 Dekretuak ez die inolako betebeharririk ezartzen 15 enplegatu baino gutxiago dituzten establezimenduei.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

50. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere hizkuntzak presentzia nagusia izan dezan publizitatean, errokulazioan, kanpo-seinaleztapenean eta lurraldearen irudi orokorrean.

Ondorioz, ez da lege-urraketarik, baina webguneak euskaraz ez egotea, ordainagiria eta gutuna erdara hutsean jasotzea bezalako hizkuntza-eskubideen urraketak salatu dituzte herritarrek.

Publizitatea

ENERGIA HORNITZAILEEK FRANTSES EDO GAZTELANIA HUTSEAN IGORTZEN DIETE ERABILTZAILEEI ETA BEZERO EUSKALDUNEI EUREN ZERBITZU ETA PRODUKTUEN GAINEKO INFORMAZIOA.

2012an herritarren erreklamazioak jaso dituzte, besteak beste, IBERDROLA, GAS NATURAL, ENDESA eta REPSOL enpresek, herritarrei igortzen zaien publizitatea, mota askotako informazioa eta abar erdara hutsean egoteagatik. Kasu askotan, kontratua euskaraz espresuki sinatu arren eta fakturak ere euskaraz jaso arren, herritarrek gaztelaniaz jasotzen dute bestelako informazioa. Azpimarratzekoa da kexa gehien jaso duena IBERDROLA dela eta honek gehienetan ematen duen erantzuna haxe dela: Iradokizuna eskertzen dugu eta komunikazio departamentura igorri dugu.

Hala ere, beste erantzun honetan ikusten denez, nafarrek espresuki eskatu behar diete euren hizkuntza-eskubideak errespetatu ditazela. BEZEROEN ARRETA ZERBITZUKO ZUZENDARIA: Estatuko hizkuntza guztiak errespetatzen ditugu. Nafarroan banatutako guztia gaztelaniaz egiten da, herritarrek kontraktorik esaten ez badu. Zergatik erabakitzen du IBERDROLAk lurralde bateko hizkuntza ofiziala baztertea?

TELEKOMUNIKAZIO ENPRESEK BERDIN JOKATZEN DUTE: ESKAINTZAK ETA AUKERAK IRAGARTZEKO ERDARA ERABILTZEN DUTE, EUSKALDUNOK PUBLIZITATEA EUSKARAZ JASOTZEKO DUGUN ESKUBIDEA URRATUZ.

Nafarrak dira honen inguruko erreklamazio gehien helarazi dizkigutenak. Kasu batzuetan, aurrekoan bezalaxe, fakturak euskaraz jasotzen badituzte ere, bestelako informazio osoa gaztelania hutsean jasotzen dute. Honek argi erakusten du VODAFONE ESPAÑA, YOIGO, ORANGE... enpresa handientzat Nafarroako euskaldunen hizkuntza-eskubideak bigarren edo hirugarren mailakoak direla.

Izan ere, Nafarroan inongo lege edo arauk ez ditu enpresak euskara erabiltzera behartzen eta behartu ezean ikusten denez ez dituzte hiztunen eskubideak errespetatzen.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

50. artikulua. 2.- Hizkuntza-komunitatearen lurraldean gizaki orok eskubidea du lurraldean kokatutako merkataritza-establezimenduek eskaintzen dituzten produktuez eta zerbitzuez ahozko zein idatzizko informazio osoa bere hizkuntzan jasotzeko, hala nola, erabilera-jarraibideak, etiketak, osagai-zerrendak, publizitatea, bermeak eta gainerakoak.

ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK EZAGUTARAZTEKO PROFESIONALEK ETA GIZARTE-ERAGILEEK ERDARA ERABILTZEN DUTE NAGUSIKI.

Hemen ere berriro aipatu behar da araudiaren gabezia, bideratu ditugun erreklamazio gehienak Nafarroan gertutakoak baitira. Finantza erakundeek etxeetara bidalitako publizitatea zein bulegoetan paratzen dutena, esku-orriak, kartelak... gaztelania hutsean ematen dira. Jokaera honekin frogatzen dute beren bezero euskaldunen hizkuntza-eskubideak ez zaizkiela batere axola. Dena dela, EUSKADIKO KUTXAK nafar batek egindako erreklamazio bati emandako erantzun positiboa azpimarratzekoa da.

EUSKADIKO KUTXAKO BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA: “Zuen ekarpenak dagokion sukurtsalera bideratu ostean, komentatu digute egindako iradokizuna kontuan hartu dutela eta hemendik aurrera aipatutako dokumentua euskaraz ere egongo dela”.

KUTXABANK-ek, berriz, den-dena euskaraz jasotzen duen bezero batek SMS-ak gaztelaniaz bidaltzea leporatzen dionean, honela erantzuten du: “SMS bidaltzeko tresnak espazio mugatuak dauzka, handitzeko aukerarik gabe. (...) Eta mezua errepikatuta eta euskara hutsean bidaltzeak ere ez zituzkeen hartzaile guztiak pozik utziko eta kostuak handitu egingo zituzkeen. Beraz, bezero guztiak ezin dituztenez ase, euskaldunak bazter uztea zilegi iruditzen zaie”.

MULTINAZIONALAK DIRENEZ EDOTA KEXA ERAGIN DUEN JARDUERAK ESTATU MAILAKO HEDAPENA DUENEZ, EUSKALDUNAK “ULERTU” EGIN BEHAR DU EUSKARA EZ ERABILTZEA.

CARREFOUR-ek ez du Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 50.1. artikulua betetzeko inolako asmorik. Halaxe jakinarazi zigun Donibane Lohizuneko dendako zuzendariak: “Gure erakundea frantses izaera duen multinazionala da. Ulertuko duzue ez ditzakegula euskarri guztiak tokiko hizkuntzatan inprimatu”.

Bada ez, ez dugu ulertzen, ez dugu ulertzen bere produktuak saldu nahi dituen enpresa batek bere bezeroen hizkuntza baliatu nahi ez izatea.

IBERDROLAK EZ DIO TOPONIMIA OFIZIALARI ERREPARATZEN.

Ulertzen zaila bada ere, IBERDROLAK ez dio gure toponimiari behar duen errespetua erakusten eta ofizialak ez diren herri izenak erabiltzen ditu bere komunikazio eta hedabideetako iragarkietan. Erreklamazio askori erantzuna eman dioten arren -Iradokizuna eskertzen dugu eta komunikazio departamentura igorri dugu-, kexa zehatz honek ez du erantzunik jaso.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

32. artikulua. 1.-Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere lurraldeko toki-izenak bere hizkuntzan erabiltzeko, ahoz eta idatziz, esparru pribatuan, publikoan nahiz ofizialetan.

LEGEZ INONGO BETEBEHARRIK EZ IZATEA BALIATZEN DA EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK EZ BERMATZEKO.

Enpresek igorritako erantzunen artean, orokorrean, hitz politikak aurkitzen ditugu. Iradokizuna eskertzen diote herritarrari, erreklamazioa azter dezaten dagokion sailera bidaliko dutela... Baina horiekin batera egia mingarriak: argi azaltzen dute ez direla inongo legerik urratzen ari. Beraz, egoera hau aldatzen ez den bitartean argi dago euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak errespetatzen ez dituzten enpresek berdin jarraitzeko asmoa dutela.

Honela, Euskal Herri osoko tamaina handiko zein txikiko enpresak eta zerbitzuak izan dira erreklamazioak jaso dituztenak. Beraz eta ondorio gisa: babesteko arau juridikoa garatzen ez den bitartean, kontsumitzaile euskaldunen hizkuntza-eskubideak enpresen borondatearen eskuetan daudela.

EAEEn DEKRETUAK EZARRITAKOA EZ DA BETETZEN.

Marka batzuek euskarari lelo nagusian edota aldizkariaren azalean eta kontrazalean lekua egin badiote ere, ohikoa da gainerako orri guztiak gaztelania hutsean argitaratzea. Alegia, Dekretuak ezarritakoa ez da betetzen eta noski, honek eragin zuzena du euskaldunon eskubideen bermean.

Urteak daramatza kontsumitzaile euskaldunak eskubide-urraketa pairatzen. 2008ko Dekretuak aukera batzuk zabaldu bazituen ere, 2012an Eusko Legebiltzarrak kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunen eskubideen kontrako urraketak zehapenik gabe uzteak, erabat babesgabe utzi ditu berriz ere kontsumitzaile euskaldunak.

HERRITARRAREN KEXAREN AURREAN ORAIN ARTEKO POLITIKARI EUTSIKO DIOTE LA ERANTZUN DIOTE BEHATOKIARI.

Izan badira hizkuntza-eskubideak urratzeaz harro sentitzen direnak ere. Aipatzekoa da COMERCIO GIPUZKOAKo webgunearen kudeatzaileak herritar baten erreklamazioari emandako erantzuna:

“Gurea erakunde pribatua da, Espainian gaude eta ez gaude behartuta jakinarazpenak euskaraz egitera. Euskara “dialekto” bat besterik ez da, eta espainola “guztion ama-hizkuntza denez” ez dut denborarik galduko mezuak guztiok ulertzen dugun hizkuntzan bidaltzeaz gain, "dialekto"etan ere bidaltzeko. Gure orain arteko politikari eutsiko diogu, eta aurrerantzean ere mezuak gaztelaniaz bidaltzen jarraituko dugu, horretarako dugun askatasuna baliatuz. Izan ere, gure produktuak, zerbitzuak eta eskaintzak comerciogipuzkoa.com webgunean txertatzen ditugun establezimenduek askatasun osoa ematen digute iragarkia aukeratutako hizkuntzan jartzeko, euskara hutsean, gaztelania hutsean nahiz ele biz”.

ALDERDI POLITIKOEN EZ DITUZTE HERRITAR EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BERMATZEN.

Batzoki batzuek hedabide desberdinetan argitaratutako iragarki batzuk gaztelania hutsean argitaratu izana, horixe da euskaldun askok EAJ-PNVri leporatzen diotena. Alderdi honek ez digu kexa honen inguruko inolako arrazoirik igorri, ezta aldatzeko asmorik duten ere.

NAFARROAN, DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOAK JASO ARREN, ZENBAIT GIZARTE ERAGILEK BAZTER UZTEN DITUZTE EUSKALDUNAK BEREN KOMUNIKAZIO-IRIZPIDEETAN.

Ugariak izan dira gai honen inguruan 2012an jaso diren erreklamazioak. Nafarroako Gobernuak edota Iruñeko Udalak diruz lagundutako jarduerak izan arren, antolatzaileek ez dituzte euskaldunak kontuan hartu.

Nafarroan euskaldunak ez balego bezala jokatzeko dute eragile hauek, edota bestela, euskaldunak aisialdian, kulturen eta bestelako esparrutan parte hartuko ez balute bezala.

Eta non gelditzen da erakunde publikoek laguntzak banatzen duten betekizuna? Hauena baita horren ardura, denona (euskaldunona ere bai) den dirua banatzean, herritar guztiak (euskaldunok ere bai) eta Nafarroako bi hizkuntza ofizialak kontuan hartzea.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

48. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitatearen lurraldean, herritar orok eskubidea du bere hizkuntza balio juridiko osoz erabiltzeko edozein motatako salerosketa ekonomikotan, esaterako, ondasunen eta zerbitzuen salerosketak, banku-eragiketak, aseguruak, lan-kontratuak eta abar.

Dirudienez, erreklamazio hauek jaso dituzten eragileek zein erakunde publikoek ez dute uste euskaldunon eskubideak kontuan hartzekoak direnik, izan ere, erantzun bakar bat ere ez digute eman.

Lan mundua (sektore publikoa)

ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK EZ DU EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BERMATZEKO LANIK HARTZEN.

Eta horren ondorio zuzenak pairatzen dituzte euskaldunek. Espainiako Estatuko Administrazioa da lan eremuan eskubideak gehien urratu dituen administrazioa. Kexa gehienek idatzizko erabilerarekin dute zerikusia. Izan ere, INSStik, SEPE eta TGSSEk igortzen dituzten inprimakiak, agiriak, jakinarazpen pertsonalizatuak, ziurtagiriak, esku-orriak eta abar gaztelania hutsean jasotzen dituztela salatu dute behin eta berriro herritarrek.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

48. artikulua. 3.- Gizaki orok eskubidea du bere hizkuntza-komunitatearen lurraldean bere hizkuntzan eskura izateko aipatutako eragiketarako egiteko behar diren agiriak, hala nola inprimakiak, txekak, kontratuak, fakturak, ordainagiriak, emate-agiriak, eskaerak eta gainerakoak.

Zuzeneko harremana ere ez da euskaraz bermatzen hainbat bulegotan eta telefono bidezko harreran. Ez errespetatzeagatik, izen ofizialak ere ez dira errespetatzen, gaztelaniazko grafia erabiltzen baitute eskumena duten erakundeek hartutako erabakien gainetik.

Kexa horiei erantzuteko Behatokira bidalitako gutun batean baino gehiagotan, INSSk berak aitortzen du badakitela bezero guztiek euskaraz artatuak izateko eskubidea dutela, baina ez dela beti posible izaten.

ESPAINIAKO ADMINISTRAZIOAN ERE GASTU PUBLIKOAN EZARTZEN ARI DIREN MURRIZKETEK EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK KALTETZEN DITU.

Hori ondoriozta daiteke, gutuna gaztelania hutsean zegoela eta herritarrak egindako kexari erantzunez, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalako Bizkaiko Probintzi Zuzendaritzak igorritako erantzunetik. Horrelaxe dio hitzez hitz: “Administrazio publikoen gastuan ezartzen ari diren murrizketek lehentasunak ezartzera behartzen gaituzte”.

Idatzizko erabilerarekin batera ahozko erabileran ere urratzen zaio eskubidea euskaldunari. Beste alde batetik, gero eta zabalduago dauden internet bidezko izapideak euskaraz ez egitea eta webguneko informazio asko euskaraz ez egotea ere behin eta berriz salatu dute herritarrek.

ESPAINIAKO ESTATUAK NEURRI ERAGINKORRIK EZ DUELA HARTU ONDORIOZTATU DU EUROPAKO ADITUEN BATZORDEAK.

Horrela ez da harrizkoa Europako Adituen Batzordeak Espainiako Estatuak Erregio edo Gutxiengoen Europako Itunaren betetze mailaren 2011n egin eta 2012an ezagutzera emandako ebaluazioan agerian jarri duena: Espainiako Estatuak ez dituela konpromisoak bete eta ez duela neurri eraginkorrik hartu detektatutako gabeziei aurre egiteko.

FRANTZIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK ERAGOTZI EGITEN DU LAN-DEIALDIAK EUSKARAZ IRAGARTZEA.

Legeak estatus ofizialik aitortu ez arren, ez dago ukatzerik euskara berezko hizkuntza dela Ipar Euskal Herrian. Hala ere, langile euskalduna bilatzen zuen heinean, Ipar Euskal Herriko eragile batek lan deialdia bi hizkuntzetan, euskaraz eta frantsesez, bidali zuen PÔLE EMPLOI erakundera. Honek, euskaraz idatzia zelakoan ez zuen onartu. Horrela, erakunde honek diskriminazio garbia eragiten du euskal hiztunetiko. Euskal hiztunak izanen ez balira bezala, ikusezin bihurtuz jokutzen du, oinarritzko printzipio eta eskubide guztiak oinpean hartuz.

NAFARROAKO EUSKAL HIZTUNEK EUSKARAZ BIZITZEKO EGITEN DUTEN AHALEGINAK EZ DU NAFARROAKO GOBERNUAREN ERANTZUNIK MEREZI.

Nafarroako Gobernuak elebakartasuna oinarri duen politikari eutsi dio beste urte batez eta sistematikoki gaztelania hutsean funtzionatzen du. Halere, Nafarroako Gobernuaren Landa Garapena, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuari Behatokiak bideratutako kekek ez dute erantzun bakar bat ere jaso. Urraketa salatu eta zerbitzua hobetzeko herritarrek bideratutako kexa eta iradokizunek ez dute merezi, nonbait, Departamentu horren adeitasunik.

Kexa gehienek idatzizko erabilerarekin dute zerikusia. 2012 urtean ohikoa izan da inprimakiak, iradokizun orriak, argitalpenak, jarraibideak, informazio orriak, jakinarazpenak, e-postak, SMS mezuak eta abar gaztelania hutsean bidaltzea. Honekin batera, webgunea, logoa eta zigilua gaztelaniaz egoteagatik kekek bideratu dituzte herritarrek Behatokira. Euskaraz artatuak izan ez direlako ere kexu dira herritarrek.

Legeak berak ezarritako eskubideak ukatu egiten dizkie herritarrei Nafarroako Gobernuak eta hark ezartzen dizkion betebeharrak muzin egitera iristen da, besteak beste, eremu euskalduneko herritarrei zuzendutako inprimakiak gaztelania hutsean bidaliz.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

51. artikulua. 1.- Gizaki orok eskubidea du lurraldeko berezko hizkuntza erabiltzeko enpresekin, merkataritza-establimenduekin eta erakunde pribatuekin dituen harremanetan, eta hizkuntza berean artatua edota erantzuna jasotzeko.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO LANGILEEI ERE EZ DIE BERMATZEN EUSKARAZ LAN EGITEKO ESKUBIDEA NAFARROAKO ADMINISTRAZIOAK.

Eskura dituen lan-tresna eta bestelako baliabideak gaztelania hutsean izateaz gain, ohikoa da erabat Administrazioaren sail ezberdinetako langileei igorritako gonbidapen, jardunaldi eta beste hainbat jardueri buruzko informazioa igortzeko mezu elektronikoak gaztelania hutsean bidaltzea.

LANBIDEREN HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK EZ DIZKIETE HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BERMATZEN ERABILTZAILE EUSKALDUNEI.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, herritarrekiko zuzeneko zerbitzuan errepikatzen da gehien eskubide-urraketa. Herritarrek ahozko zerbitzuan ez ezik, idatzizkoan ere urratuak ikusi ditu hizkuntza-eskubideak Lanbiderekin harremana izan duenean. Hala, web bidez azaltzen diren lan eskaintzak, jakinarazpenak, oharra, gutunak eta oharra euskaraz ez jasotzeaz kexatu dira herritarrek.

Beste alde batetik, egoitza batzuetako errotuluak gaztelania hutsean daude oraindik, eta jendeari begirako ohar idatziak ere gaztelania hutsean jartzen dira, ofizialtasun bikoitzaren printzipioa ahaztuz, urratuz.

“ITZULPENAK EGITEKO BEHAR BESTE BALIABIDERIK EZ” EDOTA “NORBERAK ITZULITAKO EREDUA ERABIL DAITEKE”, BIDERATUTAKO KEXEI LANBIDEK EMANDAKO ERANTZUNAK.

Behatokitik bideratutako kexei erantzuteko Bezeroei Arreta Emateko Zentrotik igorritako erantzunetan jakinarazten denez, sortu zenetik Lanbidek euskararen erabilera betearazteko ahaleginak egin ditu eta zerbitzua nahi den hizkuntzan jaso daiteke. Halere, lan-arloan azken aldian izan diren aldaketa ugariak direla eta, eguneratuta eta itzulita agertzen diren kontratu-eredu bakarrak gaztelaniazkoak dira.

Nolanahi ere, diotenez norberak itzulitako kontratu-ereduak erabil daitezke. Alegia, administrazioari dagokion lana eta betebeharra, berak egiteko iradokitzen dio herritarri. Agerikoa da euskara komunikazio-hizkuntza izateko ezinbestekoa dela neurri eraginkorragoak hartzea.

OSALANEN KOMUNIKAZIO IRIZPIDEEK EZ DITUZTE EUSKAL HIZTUNEN HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK SEGURTATZEN.

OSALANek, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, lan-arriskuen prebentziorako abian jarritako kanpainaren inguruan zenbait egunkaritan jarritako iragarkiak gaztelania hutsean egoteak kexa bat baino gehiago jaso du (Campaña móvil de formación gratuita en prevención de riesgos laborales). Eta ez hori bakarrik, kanpainaren barruan herrietan abiatutako ikasgela mugikorra iragartzeko kartelak berak ere -Prevención en movimiento- gaztelania hutsean paratzeagatik kexaren berri eman digute herritarrek.

Horrela bada, zerbitzu publikoa eskaintzen duen neurrian, hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak betetzeko ez du behar besteko lanik hartu eta horrek zuzen-zuzenean eragiten du herritarren hizkuntza-eskubideetan eta eskaintzen duen zerbitzuaren kalitatean.

Lan mundua (sektore pribatua)

LAN MUNDUAN EUSKARA INTEGRATZEKO ETA ERABILERA AREAGOTZEKO BEHARRA.

Hori da herritarrek igorritako kexetatik ondoriozta daitekeena, ohikoa baita gutunak, erosketa kontratua, inprimakia, jakinarazpena, galdetegia eta abar gaztelania hutsean helaraztea. Esan genezake, gainera, hainbat kasutan toki gehiago eskaintzen zaiela atzerriko hizkuntzei berezkoa den euskarari baino.

Horrela, Eusko Trenbide Sarea erakunde publikoak enpresa pribatu baten bidez kudeatu du lanpostu bat betetzeko prozesua; hauta-proban elkarriketa gaztelaniaz eta ingelesez burutu zela eta euskaraz hitzik ere ez ziotela egin salatu zuen herritar batek.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala


51. artikulua. 2.- Gizaki orok eskubidea du, bezero, kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa, jendeari zabalduetako establezimenduetan informazioa lurraldeko berezko hizkuntzan jasotzeko, hala ahoz nola idatziz.

Lan-eskaintzak erdara hutsean zabaltzea ere izan da jaso den beste kexetako bat. Zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituzten enpresen web orriak ere, kasu askotan, gaztelaniaz, frantsesez, portugesez eta ingelesez kontsultatu daitezke baina ez euskaraz.

Bestalde, Jaurlaritzak hirugarren bati esleitzen dizkion zerbitzuen kontratazioan ere, ez da neurririk ezartzen lan-munduan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzen. Gertaera hauek, lan munduan euskara integratu eta hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurri eraginkorren beharra uzten dute agerian.

ZERBITZUA EUSKARAZ ESKATZEAK EDOTA KEXA JARTZEAK BADITU ONDORIO POSITIBOAK.

Hori erakusten du Babes Ofizialeko Etxebizitza egokitu zaion herritarrek helarazi digun informazioak. Eraikuntza-enpresak gutuna, erosketa-kontratuaren zirriborroa, uko egiteko inprimakia, kalitatearen memoria eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzei buruzko informazioa ematen duten dokumentu guztiak gaztelaniaz bidali zizkion. Kexa jarri ondoren, enpresak neurriak hartu eta gaztelania hutsean bidalitako agiriak euskaraz bidali zituen.

A man with dark hair, wearing a red and black jacket and blue jeans, carries a young child with curly brown hair on his shoulders. The child is wearing a dark, patterned jacket. The man is holding a white sign with black, hand-painted text. The background is a dark, crowded street at night, with other people and a sign with the letters 'AR' and 'JUT' visible in the distance.

euskara
hitz egin
nahi dut

7. HEDABIDEAK

EUSKARAZKO HEDABIDEEN AURKAKO NEURRIAK

Hedabideen sektorean (euskara hutsean dihardutenak salbu) hizkuntza hegemonikoen eta euskararen erabileraren arteko desoreka izugarri nabaria da. Ez agintariek, ez hedabide pribatuek, oro har, ez dute ahaleginik egiten euskara gutxiagotasun egoeratik ateratzeko.

Hala, Frantziako prentsa agentziak eta argitalpenak kudeatzen dituen batzorde parekideak ez die euskaraz jarduten duten sareko bi hedabideri informazio orokorra eta politikoa lantzen duten hedabide elektronikoen izaera onartu, eta horren ondorioz, diru-laguntzaren proportzioa %60tik %20ra murriztu diete, euskara erabiltzeagatik duten irismena murrizta dela argudiatuz.

France 3 Telebistak, berriz, Euskal Herriko erredakzioa itxi du Omiasaindu eta Eguberrietako oporretan ikusleak telebista publikoan euskaraz eskaintzen diren minutu apur horiek gabe utziz.

EUSKARA ERDARAZKO HEDABIDEETATIK KANPO

Kontua ez da ordea desoreka soilik, jokabide baztertzailak ere antzeman dira: Navarra Televisionen, esaterako, Nafarroako Parlamentuko zuzeneko emankizunetan parlamentarien euskarazko interbentzioak itzultzaileen ahotsarekin estaltzen dituzte euskarak inolako presentziarik izan ez dezan.

Edo Sud Ouest egunkariaren kasuan bezala, ez dira euskara hutsean idatzitako iragarkiak onartzen. Erdara hutsean argitaratu eta doan banatzen diren argitalpenen kasua dugu bazterkeria horren beste adibide bat.

EUSKAL GRAFIKAK ERABILTZEKO ERRESISTENTZIA

Erdal hedabideetan, euskarazko izen ofizialak eta dagokien grafia onartzeko eta erabiltzeko erresistentzia antzeman daiteke oraindik hainbat hedabideetan (Mediaset, Gente, Diario de Noticias), nahiz eta joera hori askoz ere nabarmenagoa den estatu mailako hedadura duten hedabideetan.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

32. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere lurraldeko toki-izenak bere hizkuntzan erabiltzeko, ahoz eta idatziz, esparru pribatuan, publikoan nahiz ofizialetan.

HEDABIDEAK ORO HAR EUSKALDUNAK GUTXIESTEN DITUZTE BEREN XEDE TALDE GISA

Informatzeko jardunetik kanpo, hedabideek salmentak handitzeko burutzen dituzten marketing kanpainenetan, erdararen nagusitasuna erabatekoa da.

Bereziki deigarria da Gara-Baigorri argitaletxearen kasua. Bere xede taldean euskaldunak eta euskaltzaleak nagusi izan arren, “El tiempo de las luces” Arnaldo Otegi eginiko elkarrizketa liburua gaztelaniaz argitaratu zuen lehenik, eta hilabeteko atzerapenez iritsi zen elkarrizketaren euskarazko bertsioa.

Orokorrean, herritarrek hedabideetara jotzen dutenean, gerta liteke harremana euskaraz ezin gauzatu izatea. Deia erredakzioa eta Diario de Noticiaskoa ditugu horren adibide.

HIZKUNTZA KUOTAK BEHAR DIRA HEDABIDEEN ARLOA ESTRATEGIKOA DELAKO EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO.

Hedabideen arloa estrategikoa da hizkuntza gutxituen prestigioa hobetzeko eta hizkuntza-komunitateen arteko elkar ezagutza sustatzeko. Ildo horretan, egungo egoeran, hizkuntza-kuotak ezinbestekoak dira euskarak presentzia duinagoa izango badu Euskal Herriko hedabideetan.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

35. artikulua. Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du erabakitzeke zein mailatako presentzia izan behar duen bere hizkuntzak bere lurraldeko hedabideetan, hala tokiko eta tradizioaletan, nola irismen handiago eta teknologia aurreratuagoetan, erabiltzen den hedapen- edo igorpen-sistemari begiratu gabe.

Euskarak presentzia duin bat izan dezan, euskaraz bizi nahi dutenek horretarako aukera izan dezaten, Euskal Herrian euskara hutsean emititzen ez duten hedabideentzat euskararen erabilera kuota legez ezarri beharko litzateke eta, kuotak ezartzeaz gain, horiek beteko direla bermatzeko mekanismoak ere abian jarri.

ETBIn ELKARRIZKETATUAK GAZTELANIAZ ITZULPENIK GABE.

2012an gertaera honen inguruan zenbait kexa jaso dira. Esaterako, ETB1ek eskainitako abuztuko estropaden ondoren egindako elkarrizketa bat baino gehiago gaztelania hutsean izan ziren; Rafael Amargori ETB1en Ai Ama saioan elkarrizketagileak galderak euskaraz egin zizkion baina erantzunak gaztelania hutsean eman zituzten. Onartezina da elkarrizketatuak erdaldunak izanik ikusleek beren adierazpenak inolako itzulpenik gabe jaso behar izatea.



8. ZERBITZUAK

Garraioa

EUSKALDUNAK EZIN BERE HIZKUNTZAN BIDAIATU

Garraio zerbitzuak zerbitzu publikoak eta unibertsaltasun baldintzetan eman beharrekoak izan arren, eta ondorioz, erabiltzaile euskaldunei begira legezko betebeharrak badituzte ere, garraio enpresek ez dituzte haintzat hartzen erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak. Jaso ditugun kexek erakusten duten moduan, ohikoa da euskaraz egiten duen herritarrari espainieraz erantzutea, edo espainieraz hitz egiteko eskatzea.

Euskaraz egin nahi duen bezeroa zakar tratatzea ere behin baino gehiagotan gertatu da: “Si quieres que te atiendan en euskera, espera al siguiente autobús” (euskaraz arta zaitzaten nahi baduzu hurrengo autobusari itxoin beharko diozu), “primero me tendrás que decir dónde estás” (lehenik non zauden esan beharko didazu) ... oraindik ere euskaldunok jasan behar izaten ditugun jarrera onartezin eta salagarriak.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

10. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitate guztiek eskubide berdinak dituzte. 2.- Deklarazio honek arbuigarriztat jotzen ditu hizkuntza-komunitateen aurkako diskriminazio guztiak (...).

GIZARTE ERANTZUKIZUNIK EZ

Garraioak bezala interes orokorrekoak diren zerbitzuak ematen dituzten enpresei gizartearekin erantzukizunez jokatzeko eska dakieke, eta erantzukizun hori hizkuntza eskubideen alorrera ere hedatzen da, are gehiago enpresa nagusien kapital zati handiena publikoa dela kontuan hartzen badugu. Zoritxarrez erantzukizun hori ez dator bat kapital publikoaren ehunekoarekin ere.

Erabiltzaileei orokorrean zuzendutako mezu edo informazioetan (egunkarietako iragarkiak, pantailetak mezuak, megafonia, seinaleak, ohar idatziak, informazio-orriak...) ez da euskararen presentzia bermatzen. Ez hori bakarrik, sarri askotan atzerriko hizkuntzek berezko hizkuntzak baino tratua hobe jasotzen dute garraio enpresen aldetik.

Erakunde publikoek badute zeregina franko zerbitzu-esleipenetan edo kontratazio-baldintzetan hizkuntza betebeharrak finkatzen eta horien jarraipen zorrotza egiten.

Posta

HIZKUNTZA PAISAIA URRATS BAKANAK

Espainiako Correos posta enpresak eleaniztasunaren aldeko posizionamendu argia, indarrean den legea betetzeko prestutasuna eta eleaniztasuna sustatzeko sentsibilitate berezia azpimarratzen ditu behin eta berriro Behatokiari bidaltzen dizkion erantzunetan, baina euskal hiztunei ematen dien zerbitzuan ez da horrelakorik islatzen.

Euskaraz egin nahi duten herritarrei espainieraz egiteko eskatzen zaie, edo euskaraz egiten duenari espainieraz erantzun, bai aurrez aurreko arreta ematerakoan, bai eta idatzizko harremanetan ere.

Zigiluetako testuak, informazio-orriak, aurrez frankeatutako gutun-azaletako testuak, posta zertifikatuko eranskailuak, webguneko informazioa, espainieraz soilik ageri dira.

Urraketa giroa orokorra izan arren, hobekuntza txikiak ere erdietsi dira: Hondarribiko bulegoan zigilua berriro dute zaharrean herriaren izena gaizki idatzita ageri zelako. Gaur egun duela 3-4 urte baino euskaldunagoa da hizkuntza-paisaia Correos-en. Seinaletika, erabiltzaileei zuzendutako ohar idatziak, inprimakiak, errazago aurki daitezke euskaraz, erabateko normalizaziora iristeko bide luzea gelditzen den arren.

Zerbitzu profesionalak

NOTARITZAN EUSKARAZ ULERTZEN EZ DUTENEZ, EUSKALDUNARI EZ DIOTE EUSKARAZKO AGIRIRIK ONARTZEN EDOTA EZIN DU ETXEA EUSKARAZ ESKRITURATU.

Larria da, oso larria, gaur egun, bai herritarrak eta baita erakundeek ere, notaritzetara zerbitzuen eske joatean zerbitzu horiek (nola hitzez, hala idatziz) euskaraz jaso ahal izateko aukerarik ez izatea. Horrela, testamentua edota etxeko eskriturak bezalako ohiko notaritza lanak euskaraz ezin egitea salatu dute herritarrek. Horrekin batera, eskaera-idazkia notaritzan euskaraz ez onartzeagatik ere kexak jaso dira Behatokian.

Euskaldunen hizkuntza-eskubideak bizitzaren alor guztietan bermatuak behar dute izan baina, oraindik ere, bere herrian bigarren mailako herritar bat da euskalduna zenbait bulego eta zerbitzuri dagokionez. Horrela gertatzen da notaritzatan eta herritarrak atzerapenak, luzamenduak eta bestelako kalteak jasan behar izaten ditu zerbitzua euskaraz jaso nahi izateagatik.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

22. artikulua. Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du notario-dokumentuak edota fede publikoa ematen duten funtzionarioak zilegitutakoak, notarioen edo funtzionarioaren egoitza kokatuta dagoen lurraldeko berezko hizkuntzan idatziak izateko.

Energia hornitzaileak

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI DAGOKIONEZ 123/2008 DEKRETUAK EZARRITAKO BETEBEHARRAK BETETZETIK URRUN.

Euskal Autonomia Erkidegoan esparru honetako kexa gehienek eskubide urraketa ez ezik, lege urraketa ere eragin dute. Energia elektrikoa, petrolio-erregaiak eta gas naturala eskaintzen dituzten enpresek legez bermatu behar dituzte idatzitako komunikazioetan erabiltzaile zein kontsumitzaile euskaldunen hizkuntza-eskubideak.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

47. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du lurralde barruko jarduera sozioekonomiko guztietan bere hizkuntzaren erabilera xedatzeko.

Bada, behin baino gehiagotan CAMPSA, CEPESA, DANAGAS, ELECNOR, GAS NATURAL, IBERDROLAK eta REPSOL enpresek erdara hutsean helarazi dizkiete herritarrei inprimakiak, gutunak, fakturak, ordainagiriak, e-postak eta kontratuak. Horrekin batera, errotuluak eta hizkuntza-paisaia erdara hutsean egotea ere salatu dute herritarrek. Energia hornitzaile diren enpresen webguneak euskaraz ez egoteagatik ere jaso dira kexak Behatokian.

Are gehiago, zenbait kasutan, gaztelaniaz, ingelesez, katalanez eta galegoz irakur daitezke baina ez euskaraz. IBERDROLAK kexa honi erantzuteko igorritako gutunean dioenez, aurreikusita dute web orria beste hizkuntza batzuetara itzultzea. Eta egunkari batean erdara hutsean argitaratutako kexari erantzunez, berriz, iradokizuna eskertu eta komunikazio departamentura igorri dutela jakinarazten du.

Beste zenbaitetan ahozko arreta euskaraz jasotzea ez dute lortu herritarrek, eta lortu dutenean euskaraz artatuko zituen langilearen zain egon behar izan dute. Gertaera hauek guztiak erakusten dutenez, Euskal Autonomia Erkidegoan enpresa hauei 123/2008 Dekretuak ezartzen dizkien betebeharretatik oso urrun daudela baieztatu daiteke.

Horri gehitzen baldin badiogu 2012an Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Hizkuntza-eskubideak arautzen dituen zehapenak kentzea erabaki zuela EAEko Legebiltzarrak, kontsumitzaile euskaldunak hizkuntza-eskubideak egikartzeko inolako bermerik gabe gelditu direla salatu beharrean gara.

Telekomunikazio enpresak

“LE LLAMO DE ORANGE Y LE VOY A HABLAR EN ESPAÑOL” (ORANGE-tik DEITZEN DIZUT ETA ESPAINOLEZ HITZ EGINGO DIZUT).

Modu txarrean, oihuka, horrelaxe erantzun zion ORANGEko langileak herritarrari euskaraz egin nahi zuela adierazi zionean. Herritarrak horren ondotik bigarren dei bat jaso zuen ORANGEtik, herritarrak berriro euskaraz erantzutean, langileak “Idioma castellano, español” esan ondoren telefonoa eskegi zion herritarrari.

VODAFONE ESPAÑAren 1444 zenbakitik jaso zuen deiari, herritarrak euskaraz egin nahi zuela erantzun zuenean, honelaxe erantzun zion langileak: “¿Su nombre cómo se escribe con b de Barcelona o b de burro” (zure izena nola idazten da Bartzelonaren b-arekin ala astoaren b-arekin?). Herritarrak errespetua izateko eskatuta, langileak gauza bera errepikatu zion bi aldiz. Kexa bideratzeko helbidea eskatu zionean, telefonoa eskegi zion.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

48. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitatearen lurraldean, herritar orok eskubidea du bere hizkuntza balio juridiko osoz erabiltzeko edozein motatako salerosketa ekonomikotan, esaterako, ondasunen eta zerbitzuen salerosketak, banku-eragiketak, aseguruak, lan-kontratuak eta abar.

Lehenik eta behin, interes orokorreko zerbitzuez ari garela kontuan hartu behar dugu, eta interes orokorreko zerbitzuak legez unibertsalak izanik, zerbitzu horiek euskaraz jaso ezin izatea berez larria bada ere, herritarrek jasan behar izan duten tratu mingarri eta iraingarriak urraketa egoera are larriago bihurtu dute.

Fakturak, gutunak, jakinarazpenak, ohar idatziak, deskontu-txartela edo taloitegia, etiketak, e-posta, SMSa eta abar gaztelaniaz egotea edo igortzea dira herritarrek gehien salatu dituzten urraketa-egoerak. Fakturen kasuan, gaztelaniaz, galegoz eta katalanez jaso ahal izatea baina euskaraz jasotzeko aukerarik ez izatea ere salatu dute herritarrek. Gauza beraz kexatu dira herritarrak web orrien kasuan.

Gertaera hauek guztiak ondorio garbi bat uzten dute agerian: EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen dekretuan aitortutako eskubideak ez dira betetzen. Horretaz gain, euskaldunekiko errespetu falta eta jarrera mingarriak ere ohikoak dira eta hori onartezina da.

Bien bitartean, esan bezala, euskaldunen hizkuntza-eskubideen berme neurriek atzerapauso larria jasan dute, kontsumitzaile eta erabiltzaile euskaldunen babeserako 2008ko Dekretuan ezarritako zehapenak bertan behera utzi baititu Eusko Legebiltzarrak 2012an.

Ulertuko genuke orduko 150 kilometroko abiaduran joateagatik legea urratu duen kotxe-gidariari isunik ez jartzea? Eta ospitale batean zigarroa erretzeak ondorioz ez izatea? Izan ere, zertarako balio dute ezarritako arauak ez betetzeagatik ondorioz ez duten arauak edo legeak?

TEKNOLOGIA BERRIETAN EUSKARA ATZERRIKO HIZKUNTZEI AURREA HARTU EZINEAN

Aurrerapen teknologikoekin lotuta datozen zerbitzuetan, txartel-makinak, ordain-makinak eta gisakoetan euskarak ez du lortu Euskal Herriko berezko hizkuntza izanik beharko lukeen lehentasuna. Okerragoa dena, maiz haren presentzia ere ez da bermatzen.

Itxura batean euskaraz egiten dutela iradokitzen duten gailuak ditugu, baina ez dituzte txartelak euskaraz luzatzen, data gaztelaniaz konfiguratuta izaten dute, eskerrak emateko mezua soilik irakur daiteke euskaraz, euskarazko testuak trakets idatzita egoten dira, espainieraz hitz egiten dute... Oro har, atzerriko hizkuntzekiko begirune gehiago erakusten dute euskararekiko baino.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

50. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere hizkuntzak presentzia nagusia izan dezan publizitatean, errotulazioan, kanpo-seinaleztapenean eta lurraldearen irudi orokorrean.

EUSKAL HIZTUNAK XEDE TALDETIK KANPO

Informazio eta komunikazio teknologiekin lotutako jardueretan (sare sozialak, webguneak) erdararen nagusitasuna erabatekoa da: txioak erdara hutsean, webguneak ere erdaraz... Gaur egun ezinbesteko baliabide eta tresna diren euskarri hauek irakurle eta erosle euskaldunen nahiak eta eskubideak asetzeko neurriak eta ahalegina areagotu beharra dagoela erakusten du.

Aseguruak

ASEGURU ETXEEK EZ DITUZTE HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK SEGURTATZEN.

Enpresa publikoa den Aseguruen Kontsortzioari zenbait kalte erreklamatu ondoren gaztelania hutsean idatzitako e-posta eta sinatzeko dokumentua bidali zioten Donostiako herritarrari. Dokumentua euskaraz eskatu eta hizkuntza ofizialean bidalita zegoela erantzun zioten. Telefonoz ere erantzun berbera jaso zuen herritarrak eta gainera modu zakarrean. Erantzun horretatik ez du zalantzarako tarterik uzten: gaztelania da Espainiako Estatuako Administrazioak benetan aitortzen duen hizkuntza ofizial bakarra.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

50. artikulua. 2.- Hizkuntza-komunitatearen lurraldean gizaki orok eskubidea du lurraldean kokatutako merkataritza-establezimenduek eskaintzen dituzten produktuez eta zerbitzuez ahozko zein idatzizko informazio osoa bere hizkuntzan jasotzeko, hala nola, erabilera-jarraibideak, etiketak, osagai-zerrendak, publizitatea, bermeak eta gainerakoak.

Bestalde, aseguru-etxeek euren produktu eta zerbitzuen berri emateko herritarren eskura jartzen dituzten liburuxka, esku-orri eta aldizkariak erdara hutsean jasotzea ere ohikoa da herritarrek salatu dutenez. Azkenik, sektore

honetan ere aurrerapauso txikiak eman dira: gaztelania hutsean jasotako gutuna dela eta herritarrak jarritako kexari erantzunez, Lagun Arok igorritako erantzunak dionez, 2012ko azarotik aurrera dokumentazio gutzia elebidun egoteko prestatzen ari dira.

Elikadura

IA EZINEZKOA DA PRODUKTUEN ETIKETETAN INFORMAZIOA EUSKARAZ JASOTZEA, BAI ORDEA BESTE HAINBAT HIZKUNTZETAN.

Zorroak eta etiketak gaztelania hutsean edota gaztelaniaz eta beste hainbat hizkuntzetan egotea da herritarren aldetik kexa gehien eragin duen gertaera. Ia ezinezkoa baita produktuaren etiketetan informazio euskaraz jasotzea, bai ordea beste hainbat hizkuntzetan.

Honekin batera webgunea euskaraz ez egoteagatik ere hainbat kexa helarazi dituzte herritarrek Behatokira. Izan ere, legeak agintzen dituen ezaugarriak erdara hutsean datoz gehienetan. Hizkuntza eskubideen inguruko deklarazioek etiketajea bertako hizkuntzan egitea babesten dute; hortaz, herritarren hizkuntza-eskubideen aurka egiten du hori horrela egiten ez duenak.

PRODUKTUAK SUSTATZEKO JARDUERETAN ERE KONTSUMITZAILE EUSKALDUNAK BAZTERREAN.

Euren produktuak sustatzeko eta ezagutzera emateko egiten diren jardueretan, zozketan parte hartzeko txartelak, bonuak eta abar erdara hutsean jaso dituzte erabiltzaileek eta modu honetan berezko hizkuntza-komunitateko hiztunak diskriminatu egiten dituzte.

Ostalaritza

ZERBITZUA EUSKARAZ JASO NAHI IZATEAGATIK TRATU ZAKARRA ETA ERRESPECTU GABEKOA JASOTZEA BEZALAKO JARRERAK EZ DIRA DESAGERTU.

Jatetxeetan erdara hutsean dagoen menutik hasi eta ondoren ere faktura, ordainagiria eta informazio-oriak erdaraz jasotzea dira herritarrek nagusiki salatu dituzten urraketa egoerak. Horrekin batera, ez dira erabat desagertu erantzun zakarrak eta errespetu gabeko jarrerak.

Hala erakusten du Donostiako herritarrak helarazitako kexak. Via Fora jatetxean sartu eta ebaki bat eskatu ondoren “dímelo en castellano” (esaidazu gaztelaniaz) erantzun zion zerbitzariak, eta “que me lo digas en castellano” (gaztelaniaz esateko) berriz ere. Herritarrak kafea beste taberna batean hartuko zuela adierazi zionean “sí, vete a tomar por el culo, anda” (bai, zoaz popatik harztera) bota zion zakar zerbitzariak. Kexa honi erantzunez jatetxeko eta tabernako arduradunek adierazi dutenez, barkamena eskatzearekin batera, aurrerantzean gertatutakoa kontuan izango dute berriro horrelakorik gerta ez dadin.



9. AISIALDIA

Aisialdia

SEKTORE PRIVATUAN AISIALDIAZ GOZATZEKO MODUA: GAZTELANIAZ EDO FRANTSESEZ.

Kexa ugari jaso dute aisialdian aritzen diren enpresek. Askotan, langile euskaldunak ez izateagatik eta herritarrak gaztelaniaz edo frantsesez egitera behartuta sentitu direlako. Beste askotan, mota guztietako euskarrietan ere euskara ez delako kontuan hartu eta gaztelaniaz edo frantsesez argitaratu dituztelako: zinemetako sarrerak, online erosteko plataformak, esku-orriak, gonbidapenak, posta elektronikokoak, webgune ugari, hizkuntza paisaia...

Publizitatea edo herritarrekin harreman komertziala izateko bide hauek guztiak ez direla euskaraz burutzen salatu dute herritarrek. Azpimarratzekoa da Igeldo Parkeko hizkuntza paisaia oraindik ere, Donostian bertan, gaztelania hutsean egotea.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

7. artikulua. 2.- Hizkuntza bakoitza kolektiboki eraikitako errealitatea da, eta komunitate baten barruan norberaren erabilerarako erabilgarri bilakatzen da, kohesioaren, identifikazioaren, komunikazioaren eta adierazkortasun sortzailearen tresna gisa.

EUSKARAK EZ DU JASOTZEN EDOZEIN HIZKUNTZAK MEREZI DUEN TRATAERA.

Herriko Etxe askok frantses hutsean argitaratzen dituzte bestak eta abarreko euskarri guztiak. Horrela, bertako herritarrek antolatutako jardueren berri izateko bide bakarra frantsesa da, esku-orriak, banderolak, kartelak... frantses hutsean argitaratzen baitituzte. Azpimarratzekoa FICOBak argitaratutako iragarkiak eta webguneak akatsak zituztela, zerbitzu hau zenbait erakunde publikok sostengatzen duten arren.

Kirola

JARDUERAK IRAGARTZEKO EUSKARRIETAN EUSKARAREN ARRASTORIK EZ.

Esku-orriak, webguneak, kartelak, buletinak, online saltzeko plataforma, bozgorailuetatik botatzen diren mezuak... honen inguruko kexa ugari jaso dugu aurtan, bai arlo publikoan nola pribatuan, Nafarroan, Ipar Euskal Herrian eta Euskal Autonomia Erkidegoan.

C.A. OSASUNAK ere hainbat erreklamazio jaso ditu: bazkideei igorritako gutuna gaztelaniaz hutsean, euskarri ezberdinak gaztelania hutsean...

Dena dela, aipatu behar da lehendakari berriak bere erantzunean ziurtatu zigula Osasunak euskararen normalizazioaren alde lan egiten duela. Datorren urtean ikusi beharko da hitz eder horiek errealitatearekin zerikusirik duten ala urraketek bere horretan jarraitzen duten.

AHOZKO INFORMAZIOA JASOTZEA EZ DAGO INON GUZTIZ BERMATUA.

Asko eta asko dira egoera hau salatu duten herritarrak. Erakunde publikoko edo pribatuko langile euskaldunik ez, eta zerbitzua aurrez aurre edota telefonoz jaso nahi izanez gero, gaztelaniara edo frantsesera jo behar.

EUSKALDUNEK EUSKARAZ IRAKURRI NAHI DUTE KULTURA-JARDUERAK IRAGARTZEKO ARGITARATZEN DENA.

Sektore pribatuan, Iruñeko La Caixa-ren CIVICAN zentroa da erreklamazio gehien jaso duena, izugarri zaila baita jardueraren bat euskaraz aurkitzea, edota informazioa euskaraz lortzea, idatziz zein ahoz. Sektore publikoan, berriz, Nafarroako Gobernu eta Iruñeko Udala dira kexa gehien jaso dituzten erakundeak.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

42. artikulua. Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du berezko mundu kulturala erabat garatzeko.

Bi hauek sistematikoki urratzen dituzte euskaldunen eskubideak. Badirudi Iruñeko Udala ezkutaketan ibiltzen dela euskararekin. CIVIVOXetan, Turismo informazio guneetan... jardueren euskarriak normalean ez dira euskaraz egoten. Espresuki eskatu behar dira eta gehienetan tokian bertan ematen duten azalpena da agortu egin direla, gutxiago egiten dutela... Iruñeko Udalaren erantzuna ere ildo beretik doa: euskaraz, kopuru txikiagoa bada ere, argitaratu egiten direla. Eta orduan herritarrek luzatzen duten galdera ezin argiagoa da: Noiz agortu dira inoiz ikusten ez badituzte? Eta, agortzen baldin badira, ez lukete gehiago egin behar? Bada ez, egoerak bere horretan dirau.

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak Iruñeko Kultura Arloarekin honen inguruko alde aurreko lan bat egin zuen 2012an herritar euskaldunen eskubideak kontuan hartzeko eskatuz, baina erantzunik ez dugu jaso eta aldaketarik ere ez da sumatu.

Iruñeko Gayarre Antzokiak ere kexa ugari jaso ditu aurrean. Harrigarria Iruñeko Udalaren erantzuna: bere izaera juridikoa Patronatua denez, ez omen du Iruñeko Udalaren Euskararen Ordenantza bete behar. Halaxe erantzuten du Iruñeko Udalak, Gayarre Antzokiak euskara ez erabiltzeagatik kexak jasotzen dituen.

Gutxiago dira Ipar Euskal Herriatik jaso ditugun kexak zentzu honetan kexak bideratu dituzten herritarrak eta bakar batzuk EAEn. Hala ere egoera larriak ere eman dira bi lurralde hauetan. Esate baterako: Gasteizko euskaldunek ezin izango dute 2012ko ekainetik aurrera udal liburategietan eta zentro zibikoetan eguneroko prentsa euskaraz irakurri, Gasteizko Udalak euskarazko kazeta bakarri erosteari utzi baitio. Beste bat: Bilboko Udalak antolatutako ZINEBI Zinemaldiaren sarien banaketa-egunean gaztelania hutsera itzultzen zituzten ohol gainean zeuden atzeritarren hitzak eta filmen euskarazko azpitituluak oso urriak izan ziren.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

44. artikulua. Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du kulturarteko programetara iristeko, behar adinako informazio-hedapenaren bidez. Halaber, eskubidea du laguntza eman dakien atzeritarrentzako ikasketa-jardueri, itzulpeni, bikoizketari, postsinkronizazioari, azpititulu gintzari eta antzeko ekintzei.

KULTUR ESKAINTZA OREKATUA IZATETIK OSO URRUN ORAINDIK ERE.

Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak eta La Caixa-ren Iruñeko CIVICANek antolatutako jarduera nagusienetan euskaldunek parte hartuko ez balute bezala funtzionatzen dute hiru erakunde horiek, euskararen presentzia hutsaren hurrengo izaten baita.

Nafarroako herritarrek jarritako kexak ikusita, argi dago egoera orekatua izatek oso urrun dagoela. Kultura Departamentuak zein Iruñeko Udalak ez dute euskaldunon eskubide hau bermatzeko asmorik. Egoera hau ez da, tamalez, urteetan aldatu. Semana Música Antigua de Estella, Música para Organo en Navarra, Festival Punto de Vista, Filmotekaren egitaraua, Cultur, Festival Inmediaciones eta Nafarroako Gobernuak antolatutako antzeko batzuk dira herritarrek gehien aipatzen dituzten jarduerak, baita Iruñeko Udalak antolatutako ekimen bereziak eta CIVIVOXetan garatzen den eskaintzaren ingurukoak. LA CAIXAren CIVICAN zentroaren erabiltzaileek ere urtero errepikatzen dute honen inguruko erreklamazioa.

NAFARROAKO GOBERNUKO KULTURA DEPARTAMENTUAK EZ DU USTE EUSKALDUNEK AZALPENIK MEREZI DUTENIK.

Liburutegien zerbitzuko zuzendariak eta Argitalpen zerbitzuko komunikazio-arduradunak izan ezik, Nafarroako Gobernuko Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuak edo ez du azalpenetarako denborarik edo ez du uste euskaldunok erantzun bat merezi dugunik.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

45. artikulua. Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du lurraldeko berezko hizkuntzak toki nagusia har dezan kultur gertakarietan eta zerbitzuetan, hala nola liburutegiak, bideotekak, zinemak, antzokiak, museoak, artxiiboak, informatika-ekoizpena, folklorea, kulturaren industriak, eta kultur bizitzatik sortutako beste gertakari guztiak.

Hala ere, azpimarratzekoa da, Nafarroako Gobernuko Argitalpen Zerbitzuko Komunikazio arduradunaren ustez, 2012an ez dela oparitu daitekeen euskararako liburutik argitaratu. “Kexan aipatzen duzuen mezuan zenbait liburu proposatzen ziren Gabonetako opari gisa, baina euskarazkorik ez zegoen, euskaraz argitaratutako azken argitalpenetatik bat bakarrik ere ez zelako oparitzeko modukoa, kasu batzuetan liburu teknikoak zirelako, beste batzuetan informaziozkoak, baina bakarra ere ez opari egitekoa”.

ZORIONTZEKO ARRAZOIAK ERE BAI!

Osozara 7 zorion jaso dira kultura arlo honetan. Herritarrek Biarritz Cultura zoriondu nahi izan dute euskarari lehentasuna emateagatik. La Caixa ere kultur jarduerak euskaraz burutzeagatik bitan txalotu dute herritarrek.

Turismoa

EZ AL DA EUSKARA TURISMOA ERAKARTZEKO HIZKUNTZA EGOKIA? EZ BEHINTZAT DONOSTIA TURISMO S.A.ren USTEZ.

Donostia Turismo S.A.k hiria ezagutzeko burututako kanpainaren karteletan gaztelania eta ingelesa lehenetsi ditu, euskararen eta euskaldunen aurretik. Beste alde batetik, Garraio eta zerbitzu turistikoetan deskontuak eskaintzen dituen txartelaren mezua aukeratzean ere gaztelania eta ingelesa lehenetsi ditu: “San Sebastian card” leloa aukeratuz. Bietan eta lelo guztietan, Donostia, hiriaren izendapen euskalduna erabat baztertu du.

NAFARROARA ONGI ETORRIA EMATEKO BERTAKO HIZKUNTZA EZ, BAI ORDEA BESTE BOST.

Nafarroako Gobernuak, Aragoiko mugan, ongi etorri opatzeko jarritako hainbat seinale daude. Seinaleek Bienvenidos. Bienvenus. Welcome. Willkommen. Benvenuti. Reyno de Navarra Tierra de diversidad diote. Gobernuak ahazten du euskara Nafarroako hizkuntza ofiziala dela. Horretaz gain, ez dirudi Nafarroako Gobernuaren ustez barruko zein kanpotik etorritako euskaldunok ongi etorria merezi dugunik.

HERRIKO ETXE BATZUETAKO TURISMO WEBGUNEAK HAINBAT HIZKUNTZATAN, EUSKARAZ IZAN EZIK.

Antzeko egoera Ipar Euskal Herrian. Zenbait Herriko Etxek turismoa erakartzeko garatzen dituzten hainbat webgunetan zenbait hizkuntza erabiltzen dituzte, euskara, ordea, erabat baztertzan dute. Angeluko turismo bulegoaren webgunea frantsesez, ingelesez, gaztelaniaz eta alemanez kontsultatu daiteke, euskaraz ez ordea; Arrangoitzeko turismo bulegoaren webgunea frantses hutsean da.

ARAZOAK EUSKO JAURLARITZAREN ITZULTZAILE AUTOMATIKOAREKIN.

Eusko Jaurlaritzak ekoiztutako itzultzaile automatikoaren hastapenak ere zeresana eman zuen eskaintzen zuen zerbitzuren kalitate eskasagatik. Hona hemen herritarrek helarazitako zenbait adibide: revisión=revisión-a; vehículo=badaramat; habilidades domésticas=trebetasunak hezten duzu...



10. ERAGILEAK

Alderdi politikoak

POLITIKARIAK KAÑABERARIK GABEKO ARRANTZALEAK.

2012an hauteskundeak izan dira EAEn eta Ipar Euskal Herrian; EAEn Eusko Legebiltzarra hautatzekoak eta Ipar Euskal Herrian Frantziako Legebiltzarra hautatzekoak. Bada, batzuetan zein besteetan euskaldunon ordezkari izateko aurkeztu diren zenbait hautagai ez dira euskaldunak.

Hauteskunde garaian modu askotan eta maiz zuzentzen zaizkie politikariak eta alderdi politikoak herritarrei eta jaso ditugun hainbat kexek erakusten dutenez, hauteskundeak ez direnean ere, hainbatetan.

Horietan guztietan, erabilitako euskarria edozein dela ere (web orria, bloga, e-posta, berripapera, buletina edo esku-orria...) maiz ez dituzte euskaldunak aintzat hartzen.

ERANTZUN POSITIBOA: Amaiur koalizioak kexa jaso du otsailaren erdialdean gaztelania hutsean helarazi zuelako torturei buruzko prentsa-oharra euskara hutsean lan egiten duen hedabide batera. Bada, bertatik erantzun digutenez, akatsa onartu eta aurrerantzean horrelakorik berriz gerta ez dadin baliabideak jartzeko konpromisoa hartu dute. Gertaera tamalgarri honek eragindako atsekabeagatik barkamena eskatzen du Amaiur koalizioak.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

10. artikulua. 1.- Hizkuntza-komunitate guztiek eskubide berdinak dituzte.

Sindikatuak

SINDIKATUEK EUREN MEZUEN HARTZAILEAK EUSKALDUNAK ERE BADIRELA AHAZTEN DUTE MAIZ.

Jasotako kexek erakusten dutenez, kartelak, pankartak, informazioa edo e-postak ez dituzte beti euskaraz idazten sindikatuak. CCOO eta UGT sindikatuak gaztelania hutsean idatzitako pankartak eta kartelak jarri izanak hainbat kexa eragin ditu.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

12. artikulua. 1.- Gizaki orok eskubidea du alor publikoko jarduera guztiak bere hizkuntzan egiteko, baldin eta bera bizi den lurraldeko berezko hizkuntza bada.

LAB sindikatuak ere zer hobetua badu, herritarrak kexu agertu baitira posta elektronikoak euskaraz jaso ez dituztelako, pankarta gaztelaniaz zegoelako edo euskara erabili dutenean testuak akatsak zituelako.

ZORIONA: Hala ere, bada euskaldunak kontuan hartzen dituen sindikaturik. CNT-AIT sindikatuak azaroaren 14an Bilbon antolatutako manifestazioan euskararen presentzia asko nabarmendu zuen.

Banatutako esku-orriak euskarazko aldea erakutsiaz banatu zituzten eta manifestazioa amaiturik euskara lehenetsi zuten ahozko agerraldietan.

Eragile erlijiosoak

ERLIJIOEK EZ DIETE FEDEDUN EUSKALDUNEI HITZ EGITEN

Idatziko euskarriekin dute zerikusia jasotako kexek: aldizkarietan euskararen presentzia hutsaren hurrengoa izan ohi da eta esku-orrietan, gutunetan edo antolatutako jardueren iragarpenean ez dute euskararik erabiltzen.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

49. artikulua. Gizaki orok eskubidea du bere hizkuntza-komunitatearen lurraldean bere hizkuntza erabiltzeko edozein motatako erakunde sozioekonomikotan, hala nola, laboralak, sindikalak, patronalak, lanbidekoak eta gremioak.

Jardueren iragarpena euskaraz ez bazegoen, pentsatzekoa da jarduerak ere ez zirela euskaraz izanen.

ZORIONA: Bada euskara erabiltzen duen erlijio edo elizarik. Durangoko Eliza Ebanjelikoak apirilean Durangoko etxeetan banatutako publizitatea ele bietan zegoen.

Bestelako eragileak

EUSKALDUNAK EZ GARA GIZARTEAREN PARTE?

Euskaldunok zenbait gizarte-eragileetako partaide izan bagara eta gizarte-eragileek egiten dituzten jardueren hartzaile ere bai.

Jaso ditugun kexek erakusten dutenez, ordea, ez gaituzte beti aintzat hartzen. Informazio euskarriak, hasi webgune nahiz sare-sozialetatik, informazio-orrietatik pasa eta karteletaraino, ez dira beti euskaraz egoten. Ahozko informazioa euskaraz jasotzeko ere zailtasunak izaten dira.

Antza denez, turista gaztelaniadun eta ingelesek bisitatzeko gaituzte, baina euskaldunek ez, gida gaztelaniaz eta ingelesez bai, baina euskaraz eskaintzen ez dituenik bada eta.

Beren mezuetan euskara erabili bai, baina akatsekin egiten dutenak ere badira. Eta badira "sortzaileak" diren eragileak ere, egun indarrean diren izen ofizialak erabili beharrean, bestelakoak asmatzen dituztenak alegia.

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

31. artikulua. Hizkuntza-komunitate orok eskubidea du bere lurraldeko toki-izenak bere hizkuntzan erabiltzeko, ahoz eta idatziz, esparru pribatuan, publikoan nahiz ofizialetan.



PUSKARAZ
BIZI
NAHI OLT

11. ONDORIOAK

EUSKARAZ BIZI NAHI ETA EZIN DUTEN, UZTEN EZ DIETEN PERTSONEN KRONIKA IZAN DA 2012 URTEA ERE

Euskal hiztunekiko lehendik zetozen joerek bere horretan segitu dute 2012an. Behatokian 1500 kasutik gora jaso eta bideratu dira 2012an eta egoera hauek, oroz gainetik, euskaraz bizi nahi eta ezin duten pertsonen bizipenak dira, euskaraz bizi nahi eta uzten ez dieten pertsonen keak.

Izan ere, herritarrek Euskararen Telefonoaren bidez Behatokira helarazitako bizipenek, agerian jartzen dute administrazioek ez diotela erantzuten herritarrek euskaraz bizitzeko erakusten duten nahiari. Hamaika traba izan dira euskaraz hitz egiteko 2012an, eta erdaren hesiarekin egin dute topo behin eta berriro euskal hiztunek. Nabarmenak dira egunero sortzen diren ezintasunak eta euskaldunak ahalegin gehigarria egin behar du euskaraz bizi ahal izateko, ohiko funtzionamendua, lehenetsitakoa, erdaraz garatzen delako.

IPAR EUSKAL HERRIAN EGITURAZKO OZTOPOEK INDARREAN DARRAITE

Ipar Euskal Herrian, nekez lortzen da erakunde publikoek eskaintzen duten harrera edota plazaratzen dituzten euskarriak, jakinarazpenak, informazioak eta abar euskaraz jasotzea. Era berean, hizkuntza-paisaia ez da sistematikoki euskaratua. Beraz, oro har, frantsesaren nagusitasuna eta euskarak duen presentzia eskasa nabarmentzen da publikoarekiko harremanetan.

François Hollandek 2012ko hauteskundeetako kanpainan adierazi zuen prest zegoela Frantziako Errepublikako "hizkuntza erregionalak" herrialdeko Konstituzioan sartzeko; besteak beste, euskara ere bai. Adierazpen horiek euskararen eta Estatuko hizkuntza gutxiagotuen aldeko lege bat ekarriko zuela pentsarazten bazuten ere, 2012an Hollandek ez du bere hitza bete, gobernuak ez du euskararen ofizialtasuna onartu, ez dio euskarari lege gerizarik bermatu. Era berean, hauteskundeetan hitza eman arren, Frantziak ez du 2012 urtean Hizkuntza Gutxituen karta sinatu. Horrela bada, Frantziako Estatuak frantsesaren erabateko lehentasuna ezartzen, euskarari legezko aitortzarik eskaini gabe eta hiztunei eskubide berririk aitortu gabe jarraitzen du.

2012ko martxoan milaka herritarrek Baionako karrketan euskararen ofizialtasuna galdegin zuten arren, lege gerizarik ez izatearen ondorioz, ukapen eta bazterkeria bizi dute egunero Ipar Euskal Herriko euskaldunek. Haatik, guztiz beharrezkoa da euskaldunen hizkuntza-eskubideak aitortu eta haien babeserako nazioarteko estandarrak onartzea. Onarpen horrek berebiziko premia du.

EUROPAKO MINISTROEN KONTSEILUAK BEHATOKIAREN DIAGNOSIA BERRETSI DU

Espainiako Estatuko Administrazioari dagokionez, Espainiako Gobernuak 1992an sinatu eta 2001ean berretsi zuen Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna. Itunaren konpromisoen betetze mailaren gaineko hirugarren txostena argitaratu du 2012an Europako Batzordeko ministroen kontseiluak. Estatu administrazioek eta zerbitzu publikoek hizkuntza gutxituak eta eskualdetakoak erabiltzeko neurriak hartu behar dituztela ohartarazi du oraingoan ere. Zerbitzu horietan euskararen erabilera irregularra dela adierazi eta hizkuntza gutxitua modu sistematiko eta erregularrean erabiltzeko neurriak eskatu ditu.

Era berean, Espainiako Gobernuaren informazio publikoan, ministerio batetik bestera aldeak daudela eta informazio asko soilik gaztelaniaz dagoela nabarmendu dute.

Justizia alorrean eta, oro har, Espainiako Estatuak Hego Euskal Herrian ematen dituen zerbitzu publikoetan euskararen presentzia bermatzeko galdegiten du. Espainiako Gobernuari eskatu dio epaiketak eta justizia prozedurak gaztelaniaz egitera behartzen duten lege artikulua egokitzeko, eta justizia administrazioarako langileen artean euskaldunak ugaritzeko neurriak hartzeko.

Horrekin batera, estatuak Hego Euskal Herrian ematen dituen zerbitzu publikoek eta zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten enpresa pribatuak ere arreta eta dokumentuak euskaraz eskaintzeko urratsak egin behar dituztela zehaztu du. Langileak kontratatuzko orduan ere hizkuntza koofizialak dakizkitenak hartzeari begirako neurriak onesteko eskatu du.

Europatik Espainiako estatuari egin dizkieten gomendio hauek bat datozen urtero Behatokiak egiten duen diagnosiarekin.

Hego Euskal Herriko Administrazioei dagokienez, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren azterketa ere egiten du txostenak eta euskarazko komunikabideak sustatzeari begirako neurriak sumatzen ditu faltan. Izan ere, Hizkuntza Gutzituen Europako Itunaren eta Vasconcearen Legearen beraren puntuetako bat nabarmen urratzen ari da Nafarroako Gobernuak: ez du ez eskaintzen ez bermatzen euskarako irratirik eta telebistarik. Euskal Herria Irratiari jarduteko lizentziarik ez ematea ere berrikusi behar duela esaten dio. Are gehiago, euskarazko irratirik bat eta telebista bat sortzeko, edo EITBren irratit-telebista seinaleak bermatzeko agindu dio.

Hezkuntzan, berriz, ingelesa irakastereduetan nola txertatzen ari den kezka azaldu eta ikasleak benetan euskaldunduko dituen hezkuntza ereduen alde egiteko eskatu dio Nafarroako Gobernuari. Horiakin batera, zerbitzua euskaraz ahalbidetzeko gomendia egin dio Europako Kontseiluaren ministro kontseiluak.

Osasun arloari buruz gomendia lehenengoz: Osasun-sisteman gurea bezalako hizkuntzen sustapenaz gomendio zuzena eta berezitua egin du lehen aldiz Europako ministroen kontseiluak 2012an argitaratu emandako hirugarren ebaluazioan. Aurreko ebaluazioetan beltzune izan da osasun-zerbitzuen alorra, baina oraindik ere horretan behar bezalako aldaketak egiteko dei zuzena eta berezitua egiten diote administrazioari.

Herritarrek helarazten dizkieten keza eta bizipenetan oinarriturik, Behatokiak urterik urte txostenean jasotzen dituen ondorioetan, behin eta berriro agertu dira beltzune gisa osasun-zerbitzuak eta hala jakinarazi izan dio Europako Kontseiluko Aduen Batzordeari. Honek, besteak beste, argi erakusten du euskaraz egiteko eskubidea urratzeagatik Behatokian jasotzen diren salaketek duten eragina eta oihartzuna.

HERRITARREN EUSKARAZ BIZITZEKO NAHIAK URRAKETAREN HORMATZARRAREKIN EGITEN DU TOPO

Orokorrean, euskaraz bizi nahi eta ezina jasan behar izan du euskal hiztunak 2012an. Administrazio-zerbitzu guztietan egin dute ahalegina herritarrek zerbitzua euskaraz jasotzeko, baina osasun-zerbitzuetan, justizia eremuan, Herrizaingo eta Barne-sailetan eta hezkuntzan nabarmenak dira euskaraz aritzeko, izan hitzez nahi idatziz, herritarrek aurkitu dituzten oztopo eta zailtasunak. Horiakin batera, lan-munduan, posta eta garraio zerbitzuetan, kulturen eta merkataritzan ere ezintasun egoeran aurkitu dira euskal hiztunak behin eta berriro 2012an.

Euskal Herriko eremu administratibo guztietan (Estatu administrazioak, administrazio autonomikoak eta toki administrazioak), sektore publikoan eta sektore pribatuan (sozioekonomikoan) urratzen zaizkie hizkuntza-eskubideak euskaldunei.

Aurrez aurreko harreran zein telefono bidezkoan euskaraz aritzea ezinezkoa suertatu zaie herritarrei askotan. Beste batzuetan, herritarrek lehen hitza euskaraz egin arren, erdaraz jaso dute erantzuna edo erderaz hitz egiteko eskatu diete. Beste zenbaitetan, euskaraz aritu nahi izatekotan, itxaron egin beharko dutela edo beranduago deitzeko jakinarazi diete. Horrela, informazioa edo tramitazioa euskaraz egin nahi izateagatik atzerapenak nozitu eta ahalegin berezia egin behar izan dute herritarrek.

Idatziko hartu-emanari dagokionez, herritarrei helarazi informazioa, gidak, inprimakiak, e-posta, bidezko mezu eta jakinarazpenak, seinaleetika, webgunak, gutunak, inkestak, liburuxkak, informazio-orriak, kartelak eta panelak, egiaztagirak... eta abar gaztelania eta frantses hutsean bideratu zaizkie maiz herritarrei 2012an. Beste zenbaitetan eskasa izan da euskarri horietan euskarari eskaini zaion presentzia eta euskarazko bertsioa akatsez beterik ageri da beste batzuetan.

Horrela bada, zoritxarrez, herritarrak oztopoak aurkitu ditu euskaraz bizitzeko, sarri askotan egin du topo urraketaren hesiarekin eta ahalegin berezia egin behar izan du hesi hori gainditzeko beste batzuetan.

NORBERAREN HIZKUNTZAN BIZITZEKO ESKUBIDEA BERMATZEN EZ DUEN ADMINISTRAZIOAK, OINARRI-OINARRIZKO GIZA-ESKUBIDEA URRATZEN DU.

Administrazio publikoaren sektorean (zein sektore sozioekonomikoan) euskarak inongo errekonozimendurik gabe segitzen du Ipar Euskal Herrian. Estatuarengandik ukapen eta bazterkeria bizi dute egunero bertako euskal hiztunek.

Nafarroako Foru Komunitatean, desoreka eta herritarren arteko eskubide desberdintasunak ez du aldaketarik izan 2012an eta euskara bereganatzeko hizkuntza-eremuak ezartzen dituen banaketa administratiboak bere horretan dirau.

Horrela bada, Ipar Euskal Herrian euskarak estatus egokirik ez izateak eta Nafarroan hizkuntza-eskubideak herritar zati bati baino ez aitortzeak, herritarren hizkuntza-eskubideen urraketak ahalbidetzeaz gain, bertako euskaldunak babes gabe uzten ditu.

Hargatik, bi eremu administratibo horietan premiazkoa da lege-babesa euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatu nahi badira.

Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, euskarari lurralde osorako ofizialtasuna aitortu zitzaioala 30 urte bete dira 2012an. Administrazioak estatusa aitortzeak funtsezko bermea eskaintzen badu ere, 2012an hizkuntza-eskubideen urraketak gertatu izanak erakusten du urte hauetan guztietan hartutako neurriak ez direla aski izan euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzeko. Legeak eskubideak aitortzen dituen arren, euskara erabili nahi duen herritarren eskubidea ez da bermatzen eguneroko bizitzan. Hortaz, ezinbestekoa da ofizialtasuna edukiz betetzea, paperean jasotakoa egunerokotasunean bermatzea, ofizialtasunaren aitortzak ez baitu besterik gabe (arau, plangintza eta baliabiderik gabe) hizkuntza-eskubideen bermea ziurtatzen.

SEKTORE SOZIOEKONOMIKOA: ARAUAK EZ DU ESKUBIDEEN ERRESPETUA BERMATZEN, ARAUA BETEARAZTEKO NEURRIRIK EZEAN HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN URRAKETA OHIKOA BILAKATZEN DA.

Aurrez aipatutako zerbitzu publikoetan hizkuntza-eskubideen egoera hori baldin bada, arlo sozioekonomikoan ez da hobea. Sektore honetan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ez dago herritar euskaldunen hizkuntza-eskubideen babeserako inongo legerik. Ondorioz, 2012n ere euskaldunen hizkuntza-komunitateak erabat babes gabe jarraitu du eta erakundeek, enpresek eta entitateek lasai asko jarraitu dute dauden-daudenean, hau da, euskaldunen hizkuntza-eskubideak urratzen.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2008an onartutako dekretua betearazteko neurriak (zehapenak) baliogabetu ditu Eusko Jaurlaritzak 2012an, euskara erabiltzen ez duten saltokiei isunik ez jartzea onartuz. Lege-urraketen aurrean neurririk aurreikusten ez duen lege orok ez du inolako baliorik eta ondorioz, kasu honetan ere, euskaldunen oinarritzko eskubideen urraketa sistematizatuko duen atzerapausoa izan da.

Horrela, kontsumitzaile euskaldunak sektore sozioekonomikoan beren hizkuntza-eskubideak egikaritzeko inolako heldulekurik gabe daudela esan daiteke.

EUSKALDUNEKIKO TRATU ZAKARRA ETA ERRESPECTU GABEKOA EZ DIRA DESAGERTU

Zenbait herritarrek helarazitako gertaera hauek egunez egun euskal hiztunek bizi duten errealitatearen lagin txiki bat besterik ez dira. Euskararen herrian euskaraz hitz egiteko hamaika traba gainditu behar dituzte euskal hiztunek; baina hori ez da guztia, batzuetan tratu zakarra eta errespetu gabekoa ere jasan behar izaten dute. Zenbaitetan euskaraz aritzeko oztopoek sortzen duten ezintasunari euskaldunon duintasunaren eta nortasunaren kontrako jarrera adeigabeak ere gehitzen zaizkio:

No te entiendo, ¿Me puedes hablar en castellano? (Ez dut ulertzen, gaztelaniaz hitz egin diezadakezu?)

Le voy a hablar en español... ! (Españolez hitz egin behar dizut...!) - oihuka -

L'ordonnance de 1539 dite "ordonnance de Villers-Cotterêts" impose l'usage du français... Ce texte est toujours en appliqué. (1593ko Villers-Cotterêts ordenantzak frantsesaren erabilera behartzen du... Testu hori, gaur egun, indarrean da)

Que me lo digas en castellano! (Gaztelaniaz esateko esan dizut!)

Les documents que l'administration fiscale adresse aux contribuables n'ont pas à être rédigés dans une autre langue autre que le français. (Dokumentuak ez dira frantsesa ez den beste hizkuntza batean zuzenduak izaten ahal)

EUSKALDUNEK EZIN DUTE GEHIAGO ITXARON

Lerro hauetan marraztu dugun argazkiak, Euskal Herrian euskaraz bizi nahi duenaren mina, aintzat hartu ez izanak ematen duen mina islatzen du, errealitate ezkutatua. Oraindik ere sarri, askotan, gehiegitan sentitzen baitu bazterketa, gutxiespena, nahigabea, mespretxua, iraina, eta atsekabea euskaldunak bere herrian euskara erabiltzen saiatzen denean.

Baina, 2012an Behatokian jaso ditugun bizipen hauek guztiek errealitate bat uzten dute agerian: hizkuntza-eskubideak baliatu eta euskaraz bizitzeko nahiari erabakitasun irmoz heltzen dioten herritarren ahalegina. Traba guztien gaitetik, gero eta gehiago dira administrazio-zerbitzuetan zein sektore sozioekonomikoan euskaraz ari eta bizitzeko eginahala egiten duten herritarrak. Eta ahalegin horrek, administrazioen delibramendua exijitzen du ezinbestean. Euskaraz bizitzeko desirak eta hizkuntza-eskubideak errespetatzeko betebeharrak ezin dute gehiago itxaron.



12.DATUAK

KASUAK OROTARA

JATORRIA	MOTA	KOPURUA
HERRITARRAK HELARAZITAKOAK	KEXAK	1.432
	Eremu publikoa	%61
	Eremu sozioekonomikoa	%39
	ZORIONTZEAK	42
	IZAERA GABEAK	11
	KONTSULTAK	24
BEHATOKIAREN EKIMENAK	ALDEZ AURREKO LANA	6
KASUAK OROTARA		1.515


EREMU PUBLIKOA

ERAKUNDEA	Kop.	%
Europako Batzordea	2	0,1
Frantziako Estatuko Administrazioa	21	1,5
Espainiako Estatuko Administrazioa	123	8,6
Legebiltzarrak	4	0,3
Eusko Jaurlaritza	114	8,0
Nafarroako Gobernua	228	15,9
Arabako Foru Aldundia	6	0,4
Bizkaiko Foru Aldundia	32	2,2
Gipuzkoako Foru Aldundia	4	0,3
Udalak	336	23,5
OROTARA	870	61

EREMU SOZIOEKONOMIKOA

ERAKUNDEA	Kop.	%
Interes orokorreko zerbitzuak	135	9,4
Merkataritza gune handiak, kateak, denda erraldoiak	111	7,8
Aisialdia	53	3,7
Aseguruak eta finantzak	67	4,7
Mundu asoziatiboa	107	7,5
Elikadura eta ostalaritza	29	2,0
Profesionalak, zerbitzuak eta merkataritza txikia	59	4,1
OROTARA	561	39

ESPEDIENTEEN BILAKAERA 2002-2012



HIZKUNTZA

ESKU BIDE EN

EGOERA

2012

EUSKARAREN
TELEFONOA



902 194 332

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA